EGUNA JEL

Lafi-aldijetan agertu biaf da sendotasuna. Jolas-aldian, edonor da baikof ta adoretsu.

Lgo. urtia | 103'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17'gn. | Bilbao'n 1937'go. orrilla 1'gna. larunbata | 15 eunen

ITXASOAN

"España" itxas-lapurra betiko ondoratuta geratu da

Santander aurean, ingeles merkante bateri jaraitzen asi zanean, egazkinlariak bonbak jaurti ta ondoratzea lortu eben. - "Velasco", mariñelak jasoten. - Itxasertzetik lau millara, antxe geratu da betiko. - Alemaniarak "España,,'ko buru?. - "España,,'ren ondoratzeak poza ta adorea gure gudarietan.

"España" ondoratu da.

Beian bego!

Gure itxasoetan naste eta zaratarik ipiñ izan dau, itxas lapurren eskuetan ibill dan gudontzi ofek.

Geiago oz.

Egazkinlari bulartsu ta adoretsu talde batek, betiko obia zabaldu dautse itxasoaren gibelean.

Afo ebilana makurtu da, itxasoen jaube uste zanak, aizerik artu ezin leikiala igafi dau.

Gizon gaiztoak eta ankerak, abere basatiak eruaten daben eriotzeak jo dau.

Eta lef eginda, irabazten jakin ez daben garaitzeaz minberatuta, burua makurtu dau, apalki ta aul.

Bere ingurutan beste lapur bat, ortzak estututa, amorruz beterik, baña ezer egin ezinik, batetik bestera ikusi dogu.

"España"ko gudalburuak artu ditu. Baña biotzik ez dau izan mariñel gaisoak ortzeko!

Ofelaxo dira eurak.

Ofetxegaitik eruaten ditue atzo lako eriotzak.

Txarto egiñak beti bere ordaña izaten dau.

Berak onik ezeban egin, eta irabazitako ordaña eruan dau.

Ontzia ondo ondoratua dago.

Ito ziran mariñel koitaduen efukia dogu.

Indafez edo atzipetuta ebiltzan gure jurika.

Eta eriotzaren ordu-berbertan, indafez eta eskafez bete ebezan ugazaben erukirik be ez dabe lortu. Salduta il dira atzipetuta bizi ziran legez.

Reste askorentzat esnagafi izango al da euren eriotzea.

GOIZIAN GOIZ

Kalera urten orduko gure itxasoetan jazokun andiren bat egon ete zan bafi jakin gendun.

Batetik bestera izpaf ori zabalago zan. Siniskaitza ofaitik.

Askok ezeben sinistu nai izan lenengotan.

Gogoa berotu eta biztutearen izango ete zan susmua erabili eben geienak.

Laster ziurtau zan ofaitik.

Gure aldetik agintarjekana jo gendun.

Eta Cabo Mayor'go agiriak artu ala jakiten juan giñan.

Goizeko zortzi ta erdietan agiri auxe artu zan:

"8,30. Cabo Mayor. — "España" itxas-lapurra ikusi da N.-E.'tik W'rako erunbuan. Goi aldetik, eta Santander'go porturako efunbuaz, ingeles ontzi bat utsik, "España"k ikusi dabenean bidea ebagi gura izan dautso, baña merkanteak beti portura begira, iges egitea lortu dautso. Laster "Belasko" agertu da. Merkantearri jafaitzen asi da. Ezin dabela ikusi dabenean, Mouro'ko ugartearen aufean, saspi edo zortzi kañoi-tiro jaurti dautsoz. Merkantea begien aufetik eskutau yaku, baña "Belasko"k "España"ren bila urten daben lez, merkante ori portuan sartuko izala uste dogu."

* * *

Itxas-lapur biak Cabo Mayor'dik N. S.'ra dagoz, W'ra begira. "AVURNAVE" auxe emon da. CABO MAYOR'DIK N/S'RA, W'RA BEGIRA, "ESPAÑA" ETA "BELASKO" DAGOZ. (Ordua, 7,30.)

Bederatzi ta erdietan beste agiri au jenon zan:

"9,30. Cabo Mayor.—Santander'go egazkiñak "España"ren bila urten dabela zijurtau da. Bonba bat atzean bota dautse eta uste danez edefto jo dau. Gurma lodia dagolako zor igaro danik ezin esau daikela diño, baña "España"ko jentea "Belasko"ra igaroten dagola ta "España"ren bafuan gercago kei ugariago ikusten dala. Oartu ta ikusi gla-Estado Mayor'era adierazoko dabela, esan dau."

* * *

"10. Cabo Mayor.—"España" ziaro jota dagola adierazoten dau ta geldi dagola, ibili eziñik. Atze aldia ondoratzen igarten yakola, babor aldetik, eta bonbak lanian diarduen arfen, ur ugari urteten dautsafa."

"10,20. Cabo Mayor. — "ESPAÑA" GUDONTZIA ONDORATU DALA ZIURTAUTA GERATU DA, GURE EGAZKIÑAK JAURTI DAUTSOEZAN BONBEKAITIK".

Ofelaxe izpafak, ordutik ordura.

Eurak jakiteko keskaz ibili giñanik ezin ukatu.

Gure aldetik zerozelada geiago jakin nafean eguna igaro gendun ta bai zerbait lortu be.

ITXAS-LAPURREN BILA

Aspaldion gure itxasoetatik eta Santander aufetik kendu barik ibili dira paxisten gudontziak.

Atzo be or ebiltzan, batetik bestera.

Ur andian, Goi aldetik, "Knistley" ingeles merkantia agertu zan.

"Belasko" "España" baño ariñago dalez, oneri aurea artuta, ingeles ontziaganako bidean asi zan.

Onek baña, laster igafi eban paxisten asmua ta bere makiñak atesata, legofera begira, portuko erunbuan sartu zan.

Cabo Mayor'eko ikuskafak laster igafi eben itxasontzi ofeik erabilena ta agintariei adierazi eutsen.

Oneik, itxasontzi ingelesa balcafik ez lagateko gertu, bere aldez urteteko neurfiak artu zituen.

Eta itxasertzeko kañoiak sutan jasi ziran ordukoxe egazkiñak be an ziran itxas gañetik ziar, itxas lapurren bila.

"Belasko" bizia izan eta, igesi jasi zan. "España"k, baña, ainbesterik ezin egin eta atzean geratu biafa izan eban.

Laster eldu yakozan bere gañera egazkiñak.

BEREUN ETA BEROGETAMAR KILOKO BONBA BAT

"España" atrapaten ezeben gaitz izan egazkiñak.

Bere gañera eldu ziran ordukoxe, bonbak jaurtiten asi yakozan.

Etziran bonba andiak izan.

"España"ri lef egiterafiokuak bai ofaitik.

Euretariko batek, berogetamar kiloko bonba batek, atze-atzean jo ta lef egin eragin eutson.

Egazkiñak, euren lana bete ondoren, itxas lapurra ketan eta sutan lagauaz, euren zelaira biurtu ziran.

Bederatziak bost gitxiagotan zan au.

Bederatziak eta laurenetan, España" onduan egoan, betiko makurtuta.



"ESPAÑA" ZANTARA

Etsaia birindu arte, aurretikoen antzera

Atzo, afaisaldeko ordubatetan, Euzkadi'ko Jaurlaritza'ren lendakariak, Agirre jaunak, izpafkariok bere langelan artu ginduzan, eta azalpen auek egin euskuzan:

"España" gudontzia ondoratu dana, ba-dakizue onezkero, nonbait ere. Gertaera ori ez dogu nolanaikoa; bafian pozgafia yakun aten, gure egoera lafia dala benetan ere, argi ta garbi esan beafa dot. Ori dala-ta, eriaren gogo ta adorea biztu ta jaso egin beaf dibagu, eta jardunean, emon daikeoezan aginduak zeatz bete begiz.

Une oneitan batez ere, gudariak guda-atzekoen adore eta arnasa laguntzagafia beaf dabe, danok gertu egonaz eskeintza astun eta agindu oro beteteko.

Ganza dan gizonik ez bedi orain alpefetan egon; batzuk gotof eta luban-lanetan, besteak, izentauten dautsezan lanetan, guztiak, gudariak lez, agindupe zeatzen begoz, garaitza lortuteko gogo sendo eta kemen indartsua beafeko diranez, arerioari eutsiaz ganera, arerioa zapalduteko bide bakafa dalako.

Politika ta langile-batzak eta izpafingiak, gaurtik aurerantzean eri adoreak laso eta kemena zuzpertuten buru belafi jardun beaf dabe, gure erifaren gogo sendoa eskeintza lafiena egiteko ere gertuaz, garaitza gogo indafsua asmo bakafa izan badagigu, gure erifa nagusikeriaren aufe esi gogof gaindutu eziña biurtuko dogu, eta geure gurasoen antzera, betuak izan bafio len afotza zuzitu daigun geure lurretan, oren jafaitzale izenaren duin egiñaz.

Eriaren adore eta berotasun au, aufeneko gudafiekanafio eldu bediz ta gaur, gure gudariak erantzupenezko burukaldi gogofak asi dituen lekuan, guztiok uste doguz lez, egitada andi eta bikain biurtu bekioez.

BELASKO"REN LANAK

Bere lagunaren zori txafaz konturatuta, laster zan "Belasko" bere inguruan.

Eta bafuko gizonak artzen aleginditu zan.

Guztiak ezin artu ofaitik.

"Belasko"k ez dau alik guztiak artzeko-ta.

BONBAK NUN JO EBEN

Bonbak nun jo eben zigurtautea ez da efez.

Ala ta be Santa Barbara izenagaz ezagutzen dan tokiak jo ebela uste da.

Polboriña izaten da leku ori.

Kuberta gafiean etzan ezer igafi.

Bafuan ofaitik zulo andiren bat egin ete eutson uste da, arin ondoratu zalako.

"KNISTLEY" PORTURA

Ondoratu ta laster Cabo Mayor'dik "Knistley" ontzikoei adierazo eutsen portuan nasai-nasai sartu eikiala. Onek zorionak emon eutsezan ikuskariei eta arokaro sartu zan portura.

ZERTZELADA GEIAGO

Goizeko saspirak inguruan ontzi bat agertu zan Santander'go porturako erunbuaz. Itxasertzetik bost milla ingurura "España"k urten eutson eta erunbua aldatuntera biartu eban.

Ingelesa ukatu egin zan lenengotan eta orduan "España"k kañoi tiro batzuk jaurti eutsozan.

Leofetik ikusi eben, eta berialako baten egazkin zelaira adierazi zan.

Emendik iru egazkiñen urten eben.

Eruan ebezan bonbak 250'tik 300'kilo bitartekuak ziran.

Paxisten ontzietatik su ugari egin eutsen, baña jotea lortu barik.

Egazkiñak bonbak jaurtiten asi yakozanean, lenengotan inguruan jausi yakozan.

Baña laster, euretariko batek atzean jo ta zaratatsu ler egin eban.

Beriala "España" ondoratzen asia zan.

ALEMANAK "ESPAÑA"N?

Ondoratu ondoren, Santander'tik itxasontzi txikiak urten eben bere lofatzak bilatzen.

Gauza ugari batzea lortu eben. Txamafa eta jantzi ugari. Ogetamalau alkondara urdin, tenientearen txamafa bat, ikurfin batzuk eta ingi ugari. Izpafingiak be bilatu ziran. Alemanak asko. Zertzelada onek alemaniafak bafuan ete ebiltzan susmua agertzen dau.

"ESPAÑA"KO MARIÑELAK

Gorago esan dogun lez "España"ko mariñelak "Belasko"k artu zitun.

Ez guztiak, ofetarako astirik ezeban izan-eta.

Euretariko asko ilota geratu ziran untea dago.

Santander'tik urten, eben ontziak asoben lortu gizonik bilatzerik.

POZA ERIAN

"España"ren ondoratzea jakin zanean poz eta zarata andia sortu zan Santander'en.

Emakumiak eta gizonak kalerik kalo alai agertuten ziran, buruauste bat kentzea lortu zalako.

Emakumiak abesti ifitsuak abesturen asi ziran.

Bilbao'n be izpaf au jakin zanean poz ugari zan.

Efitaf guztiak, lenengotan sinistu nai ez-ta lotu ziran, baña izpafak egi antza agertu eban ordukoxe, gure efitafen artean alaitasun berezi bat nabaituten zan.

LENDAKARITZA'N ESAN EUSKUENA

Eguerdian izparkariak lendakaritsara

(Laugafen ofian dafai)

Zirika ta zifika

¡¡¡Gora Euzkadi Azkatuta!!!

Txoririk ez dan lekuan eizan, arerjorik ez dan tokian bufukan... ba-darabile egazkiñok jardunik najko.

Onako ta alako sailetan erkaldaf egazkiñak egin dabezan egaztada ta suagaketa izpafak izki baltz sendoekin dakuskuz. Erkal-Gobernua egazkiñen ondo ornidutta dabilela dirauskue.

Ez dakigu nungo Gobernuak, ez ei gauz bastertuta lagako. Lasterf artuko ei gauz bere babespean. Ipafaldeko goraberok begi-begiko ei yakoz. Beingoan orniduko ei gauz.. Ori eginbeafez egin beaf dabena da ta ez limosna-antzo.

Oindiñokafen euzkotaf tentelok Egora begira gagoz. Oindiñokafen Ego ofetakoak gaizkatuko gaituelakoan... Ortik yatorkun zertxobait ikusitakoan aren bjotz ona ezin ikusi daike, aren zof-ordaiña baiño.

Txori ereak ekarikof dauskuez Egora begira ao zabalik gagozan erukañoj. Oindiñokafen araxe begira euki naj gaitue emengo egozaleok. Ortik yatorkuna, zor dauskoe. Oindiñokafen lafuz ta ardura gabekeri-odeiz dakuskun Ego ofetan, Azkatasun-Eguzkia noz ikusiko gaituzu.

Egotik baiña Azkatasun-Eguzkirik egundo agertu ez yakunik ez al dukigu? Mundua aldatu egin da'a uste al-dogu?

Gure bastaf eta sailak legortu ta kiskalduten izan dauzan aiza efe zitala besterik ez yaku etorri Egotik Euzkadi zoko majtagafi onetara.

Lufitzebaiak legortean zeruari ao zabalik ur eskas egoten diran bajzen lafi, euzkotaf oro laguntza eske ta arenka gakusezanafen, itzebaioj turmojlañoak egiten dautsena egiten dauskue guri, Egoko laguntzaile esku-zabalok; "atzetik datofenak emongo dautzu, nik orain arako beste saila ezkotu beafa dot eta"; orixe egin izan dauskue guri, be, Egoaldeko laguntzaileok, beti.

Zutik euzkotafa! Egunaren ondoren gaba etoften da; ilunak baiña ondoren argia izaten dau mundu onetan. Betiko ilunperik ez dago emen.

Azkatasun-Eguzki zain Egora begira ez egon. Agertuko yaku Azkatasun-eguzkioi, bajña Egora begira ba-zagoz ez dozu ikusiko. Begiratu Euzkadi'ra. Begiratu galdu doguzan sailoi azkatasun-eguzkia ikusteko miñez.

Azkatasun-Eguzkia bekizu pozbide. Gure sailon edefa bekizu biotz-suspertzaile. Egora begira zagozala oztu yatzun biotzeko odol-apufak berotu egizuz Abeafiaren gomutan.

Gora Euzkadi'rik ez dogu beaf. GORA EUZKADI AZKATUTA izan bedi gura oiu ta ames gozo.

GORA EUZKADI AZKATUTA oiu dagigun eta Egoaldera geiago ez dagun begiratu.

Ekin dafogun bafiren-bafiz geure saila lantzeari ta geure diran sail guztiak bafiro geuretzen.

Alkartu euzkotarak! Guk izuri dogun odolak Estatutoa baiño geiago merezi dau. Odol oren lufunak Euzkadi'ren azkatasun osoa eskatzen dau. Gure gogoak Estatutoak, Gora Euzkadi ojuak, ezin asetu daikez. Beste asegafi bat beaf dogu.

GORA EUZKADI AZKATUTA izan bekigu asegafibafi.

TXINGA.

JAI BAT GOGORATZEN

Etenbako lana

Jai andia gaurkoa langilientzat.

Lanaren jaia mundu guztian zabaldua da.

Alderdi guztiak goraldu ta bete izan dabe jai ori.

Aurten Euzkadi'n ezin jai ori bete.

Atseden egiñaz ez beintzat, jolas egiñaz ez, lanik egin gabe ez.

Atseden egin eta jai egiteko baño egun lafi, estu ta neketsuagotan bizi gara.

Arerioa, gure areriorik andiena, gure azkatasunen zapaltzalea, tanoile-eskubidien menperatzalea, gure aurka dogu, gure gibelean, gure izate berbertan sartuta euki be.

Euzkadi'ren semiok afotzaren ostenkadak nabaitzen gaijoz gure aberi onetan.

Eztenkada orek uxatu ta alderatu edo euren zauriz illea yagoku gaurko bufukaldi gogof, zital, odoltsu ta gordin onetan.

Ez dago jokabide erdi, eskutu, ilun ta ixilpekorik.

Guztiok argi ta garbi, guztiok bat egiñik, azkatasuna oñafi dogula, gure izatea landuteko asmoz gabiltz, aufetik arerioaren atzapafetatik gaizkatu ta azkatuaz.

Ofetarako lan egin beafean gara. Lan gogor ta sutsu guda-aufetan izkiluekaz diarduen gudari gazte ta bulaftsuak. Lan sendo ta indafsu guda atzetan esi bafiak egin ta guda-lekuak gogortzen eta zabaltzen diarduen langile biskof eta efimeak.

Lan asmuz ta jakitez guda-atzetan guda-oñetarako lanean diarduenak, guda-oñei begira jokatzen diarduenak, gudarako sortu ta egiten diñarduenak. Guztiok lan sendo, ugari, onurakof, indafsu. Guztiok lan, biotz ta gogo. Gaurko eguna, mayatzaren lenengo eguna, mundu guztiko langileak atseden egin eta lana goratuko daben eguna, guk lan-egiñaz ospatu, iñoiz baño gogotsuago lanari lotuaz aintzaldu bear dogu.

Gaurko lana biarko atsedenean biurtuko da; gaurko ekintzak biarko emokuntzetan, gaurko nekea biarko zoriona, gaurko estutasuna biarko nasaitasun.

Langile bat, abertzale bat, gizon bat, bakafik ez dau geratu bear bere lana, bere indafa ta bere izatea aberiari eskiñi barik.

Bake-egunetan bearkuna dana, gaur nai ta ezko.

Mayatzaren lenengo eguna lan-eguna izan bedi, aberiari begira, azkatasunari begira, langile-izateari begira.

Ofelaxe antzaldu ta ospatuko dogu zoriontsuen gaurko egunau.

Aupa mutillak! Guztiok eta guztia aberiarentzat eta aberiaren alde!

Euzkadi'ko gora-berak erbestean

Laboristen jokabide-zuzena.-Gernika'ko suagaketea eſien gizatasunari salatuten.-Goering eta Mussolini'ren bańiketaldiak.-Washington'go ordezkaritzak azaldu dabezan agiriak.

"New York Herald Tribune"ren izpańak

"NEW YORK HERALD" ETA EUZKADI'KO GUDA-GORABERAK

Londres. — Langile-sindikatuetako Artezkaritza Nagusiak eta Laborista Alderdiak bion artean deí bat argitaldu dabe ta deí oſetan euskotaſ-urien suagaketak azaltzen dabez ta suagaketa oſeik zuzenpide edo guda-aikikulu gabe egindako lańegikeri odol-jaiotsu esten dabez.

Lateſi-Batza'ren bitartez suagaketok astertu dagiazala eskatzen dautse Ingelaterra'ko Gobernua'ri.

Paxiston guda-jokalegeoi gizarte-auferapen galgaſi ta gizatasunaren ondamendi dala aitzen emoten da deí oſetan laborista alderdiaren izenez.

Paxistok zeiñen biotz-gogoſ eta gizatasun-gabe diran adierasoten dausku, alemandaſ egazkinlariok etxeak apurtu asteon dagien ume, gizon eta emakume eraiłteak. Asaldari danok, espańaſ paxista ta erbestetaſ lagun guztiok euron abeſi askatasuna maite daben eta abeſiaren alde diñarduen euskotaſ kementsuoi goſoto bizta dautse.

Gernika'ko suagaketan zeinbat ti eta zeinbat zauritu diran garbi esan ez daikenaſen, ildako ta zauritutako geienak eſitaſak diran ba-dakigu.

Euren begiz ikusi ebenak azaldu dabenez, suagaketa oſen bidez eſi osoa, sailik-sail bifindu nai izan eben. Eſia apurtzea zan euron asmo bakaſa; gudea lagatearen ez jaſaitzearen eſurik ez euken eſitaſak erail eta bilduſ-ikaratzea izan ezik, beste guda-aikikulurik ezin euki egien erioi apurtzeko.

Gudeoi asi zan ezkero egunean barño egunean odoltsuago ta zitalago biurtuaz dua ta kontrola asi ostean bakeak nundik-andik egiten asteko itxaropena zan, baiña itxaropenok uxatzen asi dira.

Gudea erabagi ezin daiken Bilbao a'tzeaſen paxistok edu ori guda-tresna ta gudari sail oſetara zergaitik daruezan ezin ulertu dabe gudari aituaſ. Bilbao'n ez dago edo geſa onen goibe guztia.

Euskotaſ erkal-zale ta euskotaſ eſeketeen arteko goſotoaſen izan daike paxistok oſen talde mardulak sail oſetara eruatea. Euskotaſ eſeketetan talde aundia dau Franco'k-eta.

Bilbao artzen bere eskuarteak ustuaz ta bere gudariak galduaz, gudea irabaziteko eukezan bidea Franco'k berońek ondatzen dau gudari aitu geienak uste dabenez.

Euskotaſok kemenak berez axetzen ez ba dira ta axetu edo galduko diranik ezin esan daike orain, beintzat, Bilbao'rik eraso oſetan ezin eskuratu izango dabe paxistok eta Madrid'en antzera Bilbao, be, artu-eziñeko uri biurtuko da. Orixe da aitu askoren aburua.

Bilbao esitu ta gosez menderatzea buruak emoten ba-dautso Franco'ri, berońen ganorabako itxas-esitzeaz gain, berońen gudari talde mardulak Bilbao inguruak geldi egon beaſa izango dabe ta erkaldaſak beste toki batzuetan zifika asi daikiuezanean, toki oſeitara ezin eruan al izango dauz. esiari eutsi al izateko berton euki beaſa izango dau-ta.

Goering eta Mussolini'k izan dabezan bańiketaldiak kezkabide yakoez. Onakoa ta alakoa diñoen aurka Alemania asiko ete dan uste da, oraintsu Brihuega'n italiaſei ostikadea emon eutsenean egin ebenez.

WASHINGTON'GO ORDEZKARITZAK AZALDU DABEZAN AGIRIAK

Washington'go España'ko Ordezkaritzak Erkal Gobernua'ren agiri bat azaldu eban. agiri oſetan Euzkadi'ko Gobernua'ri emon al daikeon laguntza guztia emoten dautsela ta politika bereiz aldeakaſen Euzkadi'ko ta Valencia'ko Gobernua'ren artean asaſe edo banatzerik ez dagoala agertzen da.

Agiri oſekin batera Euzkadi'ko Gobernua'ren azalpena, be, azaldu eben. Azalpen oſetan euskotaſak euron uri ta eſiak suagatu ta eſe dabezala diñoen paxisten lotsagaldukokeria azaltzen da.

España'ko Gobernua'ren agiriak auxe diño: "Beronen eskuaſtean daukazan ta emon al daikeozan guda-gai guztiak emon dautsoz Gobernuak Euzkadi'koari, aldi onetan, be, al daikenez laguntzen dautso ta aureratzean, be, lagunduko dautso; orixe baieztu nai dogu. Asturiaſ miñeru ta santandertaſ gudariak, be, juan dira eurun sailak oſen bulartsu aldezten diñarduen euskotaſoi laguntzera ta Erkalaren arerioen lagunoi lepokadea emotera."

Euzkadi'ko Gobernua'ren agirian auxe irakurten da:

"Guztiok epaituko gaituen Jaungoiko, gizon eta edestiaren aurean zin egiñaz, ezertariko gogo-kezka gabe Gernika'ko uri ospetsuko eſitaſak eta eſia alemandaſ egazkinlariak uri orduren burutko ekiñaldian suagatu dabezala, auts-biurtu dabela ta izkilazkaſekin emakume ta umeak tiroka-tuaz asko erail dabezala ta besteei iges eragin dautsela baiezten dogu.

Gernika'ko aſitza ikuſ daben azkaltzaletasun eta azkatasunaren alde diñarduan eſi osoa bifintzeko eskubiderik dagon galdetzen dautsoegu lateſi aureratuel.

Euren eſietatik alde beaſak dabezanean Bilbao'ratu diran 300.000 emakume ta ume jasotera lateſiren batzuk ureratuko yakuzala uste dogu. Gizonentzat ez dogu ezer eskatzen, gogo bare ta baſunbe bakez, gure abeſiaren azkatasunaren alde euron buruak eskintzeko dagoz-ta.

BILBAO'KO izpańingiak

"Euzkadi"

"Luſ-Goſi" idazle azkaſena da lenengo idazlana.

Paxiotaſen izpańingijak irakurteko-ta, eruapen aundija euki biaſ dala diño. Guzuſa ta abaſa baño besterik ez ei-dabe esaten, egiſen dabezan gauzak alantxe guzuſ-bidez ostenduta eukiteko lakoxe gauza ezeskaſijak dirala-ta.

Paxiotaſen izpańingijetako batek, bere lenengo idazlana, olantxe ixenpurututen ei-dau: "Goſijak apuſtuten dabena, abeſtzaliak (?) (paxiotaſak) iragiſen dabela."

Abeſtzale ixena daruen paxiotaſak egiſen dabena, baſiz, bestera da: lengo gixaſdijak iragita egon ixan diran uri ta gauza aldintsu gustijak eſe ta deuseztutia.

Egija agertuten bilduſ danak, guzuſa agertu biaſ ixaten dau agertu be.

Franco'k esaten dauara auxe ei da: bere egazkiñak, ordu gitxijan, Madrid eta Barcelona apuſtuko leukezala, baita Valencia, Cartagena, Almeria ta Bilbao be.

Ikusten danez altasun ori beragan-edo dau, uſirik ospetsubenak eſe ta deuseztuten diñardu-ta. Eta egazkiñetan dauan indaſ ori alde gustijtara eruaten diñardubala be ondo ikusten da. Eta txaſto egin al dauan tekuban egin barik geratuteko asmorik ez dauana be bai.

Gernika ta beste berein basuri doguz ziñakiari. Franco'ren otseñak deuseztuta jaſi ixan dabezan uri ta basurijok begi-aufe ikustian softuten yakun itxaropena, auxe ixaten da: egijaren eguna lasteſ eldu-ko dala.

"Lan-Deya"

Bikuña'taſ Perdiñanda'rena da lenengo idazlana. Zenbakintzatzaz deragoyo. Zenbakuntzea lagi-bidetik atara barik eruaten danian gauza edeſa baxen ondoren onekua dala diño.

Txindi-etxietako aſtu-emonak ikusteko-ta ondiño antxiña ez dala lagi batzuk egin ixan zirala diño, eta txindi-etxietarako egin ixan ziran lagijak gintza-etxietarako be, berebixikuak ixango litzakezala uste dau.

Ondo eraldutako zenbakuntza biaſtez, lantegijetako gora-bera gustijak argi ta garbi ikusi leikezala esaten dau.

Gauza bakotxak bere ixeneko aſtu emon-ingoskija dauala diño zenbakuntzaidaztijak.

Oſetzaz eta beste gaſuntziko gauza batzutzaz argibide edeſak agertuten dauz, gintzaetan eta enparauko aſtu-emonetan be zenbatza biaſekua dala agertuteko.

"Tierra Vasca"

Lenengo ingoskijaren ixenpuruhak izki aundijakaz idazten dauz. Gurendea biaſ dogula diño, biaſ-biaſekua yakula-ta.

Gauſ eusten ba-dautsagu, bijaſko gurendea geuria ixango ei-da.

Euzko-gudari gustijei dei-egiſen dautse, ta eſiketa-era gustijak alde batera jaurtita arerijuari oldaſuteko gertau daſezela esan.

Gudarijei ta gudarijak ez diranai be dei bardiña egiſen dautse. Guda-auſetijetakuai ta guda-atzetijetakuai be bai. Aufe ta atse, aldi estu onetan, Euzkadi'ko Jaurlaritza'ren esanian jaſi biaſ ei-gara, gustijon indaſaz arerijuari atzeruntz eragiteko.

Gudea amaſuteko biderik onena ta labuſena be, guda onetan saſtuta dagozanai laguntzarik ez egitia dala diño: ez batari, ta ez bestiari, bateri be ez laguntzen dabela paxiotaſak esaten dabenian, auxe erantzun biaſ ei-yake: "Gernika",

"El Liberal"

Paxiotaſen guda-ereatzaz idazten dau. Franco auſ-ondatzaliak, baſiro be, bere guda-erea, agirijan iminí ixan ei-dau: Galdakano'n.

Paxiotaſak auſeratuten ba-daſaye, uri bat be zutunik ez ei-dabe idoroko. Gustijak eſetan ei-dabez, ba, gustijak deuseztu ta ondatu be. Guda-era ori bide dala aſtu ixan ei-dabez, ba, gustijak deuseztu ta ondatu be. Guda-era ori bide dala aſtu ixan ei-dabez orain aſte aſtu ixan dabezan uri ta basurijak: auſetik egazkiñetatik suagatubaz eſe ta deuseztuta.

Ardura barik esan ei-leike, orain, lufaldu bako itzak bidietan auſez idoroten dabezela. Ilotzoik, baña, guda-oñetatik atazkuak ei-dira: egazkiñakaz basatikeria guda-atzetijetan egiten dabezanak.

Len Durango ondatu ixan ei-eben. Geruago, Gernika. Eta azkenengo, Galdakano. Eta ankeſkerijaren andiz, Galdakano suagatuten ebiltzan biaſtian, beste egazkin batzuk, Bilbao-gane bili ei-ziran.

Euzkadi'ko gudaufka ikaragaſi onen ila-azkenian Franco'ren gudaroztiak aſtu ixan dabezan uri ta basurijak, eurak beste gauzarik esaten ba-dabe, be, auts eſe gilo bat baño besterik ez ei-dira. Franco'ren guda-erea orixe ei-da, ba: eſe ta deuseztutia.

'Euzkadi Roja"

Gudeatzaz idazten dau. España'n gudea irabazita dagola diño. Eta, Euzkadi'n be, eusten ba-dautsagu, eutsi, lasteſ irabaziko dala. Aste baten eustia, gudea irabaztia ixango litzakela esaten dau, ta jazarpen ori bizkaſeratuteko gusti-gustijok gertu egon biaſ garala.

Arerijuari eusteko eustaſirik onenak, guda-oñetako esijak dirala diño. Eta esi oſeik biaſekuak dirala be esaten dau, ta esijok egiten alegindu biaſ garala.

Madrid be guda-esijak gaizkatu ixan dabela diño. Eta Bilbao be, guda-esi onak egiten ba-dira, alantxe gaizkatuko dala.

BILBAO'RI LAGUNTZEN

Gure portura eldu diran itxasontziak dirala-ta

Inglateſa'ko joka-bidearen aldakuntzak.-Diru-emokuntza ta laguntzak.-"Manchester Guardian"ek diñona.

Jońaila'ko 24'gnko "Manchester Guardian" egunerokoak amabigaſen eſi-aldean auxe dio:

BILBO'RI LAGUNTZEN

Eraman-ekaſietako iru ingalandaſ itxasontzi Bilbo'ratu dira janariz betebeta, ezeren okeſik gabe, esija, ausiaz, ingalandaſ agintariak bultzatuta ta lagunduta. Lenago ere joan ziran beste bi itxasontzi Bilbo'ra eta beste geigaſen bat okeſik gabe erdu zan Gijon'era. Itxasontzjok, gutxi gora-bera, 5.000 tonelakada janari baiño geiago eraman dute danetara. Ori bide, 400.000 biztanle baiño geiago dituan uria, nasai dago oraingoz.

Lenago izan dituan bildufak-bilduſ eta koldarkeriak-koldarkeri, janarjok eman dituałako zoriongaſi degu Gobernua. Ingalandaſ gudontzi-taldeak, oi duanez itxas-kanpoan eraman-ekaſietako itxasontziai lagunduaz, lońtu du esija austea. "Hood" gudontzia, Franco'ren aldeko gudontziai atzera eragiteko, bi aldiz lotu zan ekiñari. Euzko-Gobernuak ere, ingalandaſ itxasontziok bein lateſiko itxas-uretaratu ziranean, beaſ bezela eta egoki zaindu zituan. Itxuraz arixkurik nagusiena ez da izan kai-ondoko minena, asaldarien gudontziena baiño. Asaldarien gudontziok Euzko-Gobernuak jeorean dituan kańoien supera saftuta aſixkatzean. atzera egin beaſ izan dute.

Argi konturatu da oraingo ontan ingalandaſ Gobernua asieran lateſiko uretako aſixkua aundi ta nabarmen aotan erabili zutena. Jońaila'ko 12'gnez, Bilbo'ra saftzera ez aſixkatzeko gaztigua aftu zutela ingalandaſ itxasontziak esan zuan Mr. Baldwin'ek; jańaila'ko 13'gnez., gudontziak Bilbo'ra sartzerik ez zuała nai Salerosketa-Zaingoak esan zuan sir John Simon'ek; jońaila'ko 20'gnez., Itxasgo-Agintaritzak auſera ez jaſaitzeko gaztigu gogoſa eman ziola itxas-ontzi batí jaulki zuan sir Samuel Hoare'k; jońailako 22'gnez., baiña, ostegunez, Gobernuak ezin zien iñondik iñora Bilbo'ra ez sartzeko "aolkurik eman" itxasontziai. Oſela, naiz eta itxasontziai lagunduta joatea ukatu egin bazieten ere, ondo lagunduak dira itxas-kanpoan eta lateſi baſuko uretara ez sartzeko eman zitzaien gaztigua zearo beſitua izan da. Euzko-Gobernuak beaſ aiñako zergatiak ditu gure Gobernuaren beſikuntzari eskeſtsu egoteko, gure itxasgoari eskeſak emateko ta aſixkuak zeaſkatzeko gure itxastaſen borondate onari eskeſ-miſik sutsuena agertzeko.

Izpańingiak berak eta amairugaſen oſialdean auxe dio: Backworth, 2.471 tonelakadako itxas-ontzia, eundaka janari tonelakada ta osa-gaiakin, Euzko-Gobernua'ren uri nagusi dan Bilbo'rako aterako da gaur.

Batza batzuen aftean itxasoratutako ontzi ontako buru Russell izango da.

Mr. F. S. Cocks laborista alduna "Backworth" itxasontzian joatekotan zan "Inglateſa oraindik itxasoen jabe ote dan ikustera" baiña, besterik erabaki zuan atzo gabaz. Bizkai'ko uretan aste bat galtzeak, egazkiñez askoz lenago joan al izan ezkero, ez dua-la erosotasunik-eta.

Bi emakume. Mrs. Manning eta Mrs. Alonso, "España'ri laguntzeko Batzoſdearen" izenez Bilbo'ra joango dira. Mrs. Alonso, janariz joandako ingalandaſ itxasontzietan euzkotaſ umeak ekaſi al ditezken konpontzera joango da. Ainbat aſpidei eskeſ, ba'dago oraindik beste itxasontzi bat bialtzeko beste diru.

Mr. Roberts liberaldaſ aldunak djonez, Bilbo'rako, gudari-osalari talde batentzako 1.000 libra esterlina eman djzkio Mr. J. B. Sykes de Leeds'ek, eta uſengo itxas-ontzian bialduko djtu. 600 libra esterlina eman zizkioten atzo Canterbury'ko dean, España'rako eleizetako janaridun itxasontzielako lendakarjak. Oraintsu esan dutenez, baltzake aste-bete baſu Bilbo'ra ateratzea al izatea.

Paxisten ankerkeriak

Euzkerearen aurka

Gipuzkoa'ko Guda-Jaurlariak izenpetuta, agindu auxe agertu da Donostia'ko izpańingietan.

"Agintaſi guztien zeregin eta buruastea izan beaſ dau bere menpeko en batasun eta anaitasuna apurtzeko diran era guztiak ezereſstutea. An-baſke aldietan egin beaſekoa ba'da, guda aldian areago.

España'ko eſi batzuen artean eon izan diran bardingetasunak ez dira iñoren eskutuko, eta euſak aztertuten aſtu barik, ainbat eſietako jente alkaſegaz bizi diran aldi onetan, bardingetasun oſeik baſetuten alegin egin gura dot, guztion biotzak Espana'ren maitasun bakaſean alkartu eta batu daitezan.

Oſelarako, maitasun ori agertzeko, erarik bizienetako bat, guztioen izkuntza bakaſa erabiltea da, berezikiauk legez izkuntza bigun eta ezti bat izan ezkero guztioen maitasun anaikoſak legez guda-iſintzi zoliak esan eta agertzeko.

Lege onen ez dau agertzen beste izkuntzen ezespenik, abeſi bakaſaren gorapen altsua baño. Origaitik nire menpeko en abeſtzaletasunagandik itxaroten dot guztiak nire lege au beteko dabela, zuzentza eta zigoſik ipintera bearlu baſik."

Aspalditik, eta azo azkenengoz, paxisten agerpen emeak irakurten genduzan, eurak euzkotaſen lege eta oiturak zaindu eta eurei men egiten entsela-ta.

Atzo oraindik paxisten agintarten espanetatik gure izkuntzearentzako lotsa-agerpena entzuten genduan.

Esanak edeſ, egiñak lander diraukue oſaitik gure aitonen esanak.

Eta beste an: Esana bat eta egiña bi, esanaz bakaſi kontenta adi.

Lege oneik paxistak gure oitura eta gure izkuntzearentzako daben maitasuna agertzen dauskue.

Ba'genkian Donostia'n gure emakumiak aspaldikorik euzkerarik gelen egin ebela; ba'genkian, Gipuzkoa eta Bizkaya'ko eſietan, emakumiak euren abeſtzaletasuna agertzen ez dirala kikildu izan eta euzkera erabili dabela abeſtzaletasun oſen ezaugaſi.

Gipuzkoa'ko gobernadore deitzen dan batek emon daben agindu onek, gure agerpenak ziurtauten ditnala ezin ukatu.

Paxistentzat miñgaſiena gure izkuntza au erabiltia da, eurak ulertu ezin daben ele zoragaſi onetan mintzatzea.

Origaitik bere aurka dira gofoto guztiak, izkuntza au izildu eta bastertu gura dabe, guri begira dagozan emakumeak euren abeſtzaletasunik agertu ez dagien.

. Oſetarakoxe legea.

Alpeſik gizatasunaren legeak, alpeſik eurak ainbeste goratu nai daben Eleizearen legeak.

Euzkerea Espańa'ren aurkako da uste danez eta erdera "ezti ta gozoari" bide egiteko, munduan ezagutzen dan izkuntzarik bigun eta eztitsuena bastartu etaezetsiten da.

Gure asaſerik ez dogu agertzen, paxisten artean asaſeak agertzeko alpeſiko dalako, baña gure artean bizi diran euzkeldun epel eta nagatei abeſtzaletasunarentzat euzkereak daben indaſa agertu gura dautsagu, paxistak berari dautsen gofotoa begien aurean ipiñiaz.

Euzkerea abendearen ezaugaſirik argiena dala paxistak eurak agertzen dauskue.

Zetarako guk, abeſtzaleok, paxisten antzera euzkera ori bastartu ta alboratu?

EUZKO LAGUNTZA

Uſengo notin auek, gaur, oſilaren 1'gan, landola ontara agertu beitez, Gran Vía, 41, 2'gn.:

Urigoitia Axuriagoſa'taſ Jagoba.
Ogara Gordonitz'taſ Julen.
Urigoiti Magunazelaya'taſ Kirdin.
Elgea Mena'taſ Pantzeska.
Elgea Mena'taſ Gerarda.
Garaigordobil Mendigutxia'taſ Jon.
Basguren Maguregi'taſ Andoni.
Arteaga Bilbao'taſ Toma.
Bengoa Aldai'taſ Pidel.
Garai Lekanda'taſ Jon.

NASKALDIJA

Ez geban gudarik gura ixan. Gudea ezeskaſi ixan yaku, ta beti ixan be.

Baña gudea ekaſi euskuben, eta gudara eruan gendubezan. Orain, baſiz, gudearen baſu baſura saftuta aurkitzen gara. Baña ez geuk gura ixan gebalako, gura ixan ez gebala saftu ixan gaſubezalako baño.

* * *

Eta bein baſuratu ezkero, baſutik urtetako alegiñak-alegin egin biaſ. Guk egiſen doguna be orixe da, ba, ta besterik ez. Gudeari eusten ba-dautsagu, geure burubak, geure eskubidiak aldeztuteko eusten dautsagu. Kistaſ-ikasbidiak erakusten dauskuna be orixe da, ba, ta, orixe ixan da beti: iñorenari geldi itxijaz, bakotxarena zaindutia.

* * *

Geuk gura ixan ez gebala ekaſi ixan euskuben guda onek, baña, egundoko estutu gauz, gu, euzkotaſok. Arerijuak gogoſ oldaſuten dausku, ta eſuki barik erail.

Eta zaldi-erotu-antzo agertuten yakun arerijo oſek, guda-auſetijari baxen ankeſ oldaſuten dautsa guda-atzetijari be. Safiłan, baſiz, basatijago.

Bere basatikeri laſegija bide dala, basuririk-gentzatsubenari be, ba, basapiztijei oldaſutuen yaken baño be gogoſago oldaſu ixan dautse, oſeik, paxiotaſ bijozgioik. Soluetan eta basuetan aurkitu ixan diran baseſiaſ eſukaſijei bixiten be ez dautse laga gura. Oſen akeſak ixateko, ¿noren seme ete-doguz paxiotaſ oſeik?...

* * *

Gudearen arerijuak gara. Batez-be, baña, gogoſkeri laſegijarenak. Ain zuzen be, gure Zaindarija, Mikel Gongotzon deuna da, iñor odolduge gudaroztiak betubaz gurendeak-gurenda irabazteko ala danan gudalburu donokiſafa.

Bere laguntza biaſian gara, gauſ, ta geuk gura ixan ez geban guda ankeſ onetatik ondo urtetako, biaſekua yakun laguntza au berari eskatuten dautsagu.

* * *

Mikel Gongotzon deunaren laguntzea, iñoz gura ixan ez dogun guda ezeskaſi oni azkena emoteko ixan be-kigu. Guda onek daruan odol-bidia iguingaſija da, ba, kistaſen begijetara negaſ malko mingots asko dakazana.

Mikel deunaren ezpateak, baſiz, bera dan altsuba ta donokiſafa dalako, iñor odoldu barik egin leike alatz ori. Eta bere laguntza-gaj ba-gara, gure Zaindarí goſafaren gentza-ezpatea gure alde ixango dogula uste dogu, ta uste onez aldeztuten doguzan eskubidiak be gurenda-bidez ganduko dauskuzala.

"Mikel, Mikel,
Mikel geuria,
zaindu, zaindu,
gen-Abeſija."

* * *

Paxiotaſak euren egunoroko lan ezeskaſijari jaſatubaz, eſirik ospetsubenak deuseztuten deragoyoe. Euren lana auxe da: apuſtu, eſe, erail, ondatu... Beraz baño lan txaſagorik ezin egin leike.

Lana, ona danian, onuragaſija da. Josu-Kisto'k Berak be, lana, onetsi egin ixan eban.

* * *

Josu-Kisto'k onetsi ixan eban lana, baña, bixitza-lana ixan zan, bixiteko biaſekua yakun ogija dakaſen lan onuragaſija.

Erijotza-lana, ostera, gaiztetsi egin ixan eban. Beraz, paxiotaſak dagijena be, gaiztetsiga dago, gaiztetsigaſija da ixan be-ta.

* * *

"Iñor ez dozu erailgo", esaten dousku Josu-Kisto'k. Beraz, Aren ikasle zintzuak ixan gura ba-gara, zijo bako erijotzarik ezin egin ixango dogu. Erijotza egiteko, baſiz, guda-bides oldaſutuen datozanai atzeruntz eragiteko-edo ixan ezik, ez dago zijorik.

Kistaſak, Josu-Kisto'ren benetako ikasliak, bide bako erailketa iguingaſi oneik osuan ezestu biaſ dabez, baña paxiotafa's egiñak diranian be...

"EGUNA" EUZKEL EGUNKARI ABERTZALEA, USTE GABEAN KALERATU ZAIGU ETA ASKO ARITUTA DAUDE NOLA EUZKERAZ EGUNKARI BAT ARGITALDU LEIKEN. IRAKURTZEN ALDEZU? ARPIDETU ALTZERA? ZERI BEGIRA, ZAUDE?

ATZERRIKO IZPARRAK

Lateŕi guztietan gaurko eguna andikiro ospatuko da

Izpaŕingirik ez gaur Paris'en.-Diru-bilketa iritxi eziñik ingelesak.-Paxisten asaŕea ta ingelesak.-Uriol andiak.-Egazkin bik alkar jo.-Alemania ta Italia alkaŕi laztanka.-Katolikoak estu Alemania'n.-Madrid suagatzen paxistak.-Emakumiak eta umiak atara nai. - Beste izpaŕak.

IZPAŔINGIRIK ERE EZ GAUR PARIS'EN

Paris.—Industri guztietako langile sozialistak, gaur, ofilaren lenengoa, Front Populaire'ren alde eta España erkaldaŕaz laguntzale jokatu-zale agerketak egingo ditue.

Lan-Batza orokaŕak eratu dau agerketa ori, eta adirazi dauanez, Paris'ko irargoletako langileen erabakiz, egunkariŕik batere ez dabe gaur argitaratuko.

DIRU-BILKETA IRITXI EZIÑIK INGELESAK

Londres.—Neville Chamberlain'ek politika eta ekonomi araźuak etorkizun argia izango dabela azaldu dautse baŕiren baŕi izpaŕkariai, iradun sei urtetan Londres'ko merkatuak ezune eta lafi aldiak igazi ondoren.

Chamberlain'en aldezlaritza malegu edo onprestitoak ez dau izan gora eta aŕera andirik eŕiaren aldetik. Inglateŕa'ko Diputetxea'n 'bart bilketa oŕeskadak fxi zienean bilketa ofen baŕi zeatz jakiterik ez egoan, baña Banku oŕek adirazi dauanez, gitxikako ala askokako eskabideak artuko ditue; oŕezkero, malegu ori bereteko asmo eragileak eurek ere esku izango dira, antza dagonez.

Diru-araźuok uri ontan makal agiri dianez, Boltsa etxea, koroitze-jayetarako gau baltzez apaindua izan dedila aipatu dabe norbaitzuek.

Alabaña, itundasun ori ez dau agertu bere itzaldian Chamberlain'ek, bart, bangoruen urteroko bazkari ondoren mintzatu zanean.

FRANTZIA'KO TRENAK

Paris.—Ogasun zaingoko arduradunak agertu dabenez Frantzia'ko tren guztiak graman-ekaŕietako ordaindu-beaŕak eunzko amaŕetik amabostera igoko ditue.

PAXISTEN ASAŔEA ETA INGELESAK

Londres.—Inglateŕa'ko Gobernuak ez dau ontzat artu paxistak egin dautsen asaŕea. Asaŕe ori "Hood" eta "Firebrake" ontziak merkantiei eskiñi dautsen laguntasunagaitik izan da. Ingelesak diñoe guren ontziak iru mila'tik kanporako urretan lagundu dautsela ta ur oŕeitan eskubide dabela egin dabena egiteko.

Blokeo kontuan ingelesak ez dabe aldatuko euren jokabiderik.

URIOL ANDIAK

Belgrado.—Save eta Morava ibaien ganez egiteak kalte ugari sortu dittu. Bost mila lagunek baño geiagok ariñeketa bizian euren etxiak laga biar izan ditue /Servia de Obrenovatz uria eta bere inguruak gutzitu beaŕa, egon da.

EGAZKIN BIK ALKAŔ JO

Londres.—Methworld ingurutan egazkin andi bik alkaŕ jo dabe. Orañarte lau aldako agertu dira eta egazkinlari bat txaŕto zauritua dago.

KATOLIKOAK ESTU ALEMANIA'N

Berlin. — Egueneko izpaŕingi guztiak azalpen luzeak agertu ditue saspi apaiz katolikoei egin dautsen epaikaritza-ausiaz.

Komunistekin artuemonak izan dituela ta salatu ditue jaupariok.

Izpaŕingion azalpenak katolikoen aurkako tankeraz egiñak dira.

ALEMANIA TA ITALIA ALKAŔ LAZTANKA

Londres.—Italia eta Alemania kultura araźuan batera ekitekotan, Von Neurath Roma'ra joango da, "Daily Telegraph"ek diñonez.

Erabaki oŕek eŕi biotako izkuntzak bakoitzarenean arakasteko asmoa izango ei dau nonbaŕ, eta biei egoki dagokiezan jakintza-arloak bere bai, ikastoletan.

MADRID SUAGATZEN

Madrid. — Paxistak Madrid suagatzen jaŕaitzen dabe. Gonzaldean baŕeri guztiak Cuatro Caminos eta Tetuan de las Victorias'en gain jauŕi eben.

EMAKUMIAK ETA UMIAK ATARA NAI

Madrid.—Aldezketa batzordeak emakumiak eta umiak Madrid'tik ataŕa naiean jarduten dau, oŕela paxisten basatikerietatik eŕugaberik geien aldendu al izateko. Azkenengo amazortzi egunetan irureun baño geiago il dira paxisten suagaketak-bide.

Madrid'en oraindik irureun mila lagun inguru egongo dira gudari ez diranak.

Atzoko suagaketan soi ildako eta ogei zauritu egon ziran.

Erepublikaŕak paxisten joaldi bat atzeratu dabe Usera auzuan.

BILBAO'RA BEGIRA

Umiak eta emakumiak atarateko lanetan. - Frantzia eta Inglateŕa'ko gobernuak ainbat ariñen atarateko alegiñak egingo ditue.

EUSKOTAŔ UMEEN INGELATEŔA' RATZEA DALA-TA

Londres. — Gudaketa latzaren aŕiskuetatik atarateaŕen, Bilbao'tik euskotaŕ ume talde batzuk Ingelateŕa'ratzea erabagi eban Ingelateŕa'ko Gobernua'k.

Gudontzien laguntzaz paxiston itxas-esiakaŕen Bilbao'ratu ziran ingelateŕaŕ saleroskeťa itxasontzietan, euskotaŕ umeren bat zuk Ingelateŕa'ratzea izan daike.

Ume ta emakumeak Ingelateŕa'ko itxasertzera itxasontzioi, ingelateŕaŕ gudontziak lagun egitea ba-daike.

Euskotaŕ umeei Ingelateŕa'n ostatua emoteko Gobernuak artu eban erabagia, Erbeste-arazo idazkari dau Sir Simon'ek, Aldamn eta Ingelateŕaŕ-Laguntza Batzordeko idazkari omenez dan Wilfred Roberts'er, egin eutson kartean aitzen emoten da.

Batzorde oŕen ordezkariak Donibane Loitzun'en euskotaŕ umeak artzeko tokiak gertetan diñardue. Beste euskotaŕ ume batzuk Pranzia'ra eruango dabezan zaratea dago.

Euskotaŕ ume talde batzuk Ingelateŕa'ratzeko Roberts'ek egin eutson eskabidea onartu ebanean, sir John' ek Batzorde oŕek zaindu eikezan baiño euskotaŕ ume geiago ara ez eruetekotan eta ume oŕeik janariŕi ta ornitzea Gobernuaren gain ez izatekoan, umeak Ingelateŕa'ratzeko Gobernuak eŕastasun guztiak emongo eutsezala aitzen emon eutson. Ume oŕeik bakea egin daitenean atzera biurtuko ei-dira euron abeŕira.

BILBAO'KO UMIAK ETA INGELESAK

Londres.—Bilbao'tik bialtzen dituzan ume guztien saŕera laketuko dau gobernuak oraingo aldi negargaŕi onek irauten daben bitartean. Prantzia eta Ingelateŕa'ko ontzietan urten al izango dabe umiok, baña Prantzia'k, aurez, Franco'



PRANTZIA'TIK DIÑOENA

Paris. — Delbos'ek adierazi dau Prantzia'ko gudontziak gertu dagozala Bilbao'ko gudari ez diran irureun mila lagun kanpora atarateko.

Prantzia eta Ingelateŕa'ren gudontziak alkaŕegaz lan egingo dabe arazo onetan. Laster iraganiko dan une baten Bilbao'ra juango dira.

Eŕi bi oŕeik Agiŕe'ren didaŕari erantzun gura dautse era oŕetara.

Bermeo'ko gudari Sendategia

Gure itxas-eŕitxu bake ta lasai onetan gudari sendategi polit, edeŕ ta osasuntsu bat daukagu atonduta. Berton Euzkadi'ren azkatasun aldezle, gudari eŕiñak pozez ta gozaro bixi dira. Ez bakaŕik sendategi-etxe au zabal, lasai ta argia dalako; ez'pa ere osagile jakituna etxe-artezkari zuzena, gexozain samuŕ eta gatzemale bizkoŕa dagolako baño. Ganera, beste anei ziyo ere bai daukoe gure moŕoskuak alai egoteko Bermeo onetan.

Sendategia ondo orniduta dago. Arazo onetarako mutil makalak dira udaldaŕ etxegile Apraiz, eta sendategi artezkaria Muñoa.

Etxe oneri aldakuntza obaŕik ezin: oso ederto dagoz bananduta boronen lau bastetak.

Jauregi onek emen bat oie daukaz. Osategi-areto polit argi bat ere bai-dauko osatebakuntzak egiteko. Ezkatz garbi edeŕa ere bai, bere gatzemal azkaŕagaz, jateko osasuntsuak gertauteko. Txaigo bikain bat eta aixetegi nasai bi eguzki ta aixia artzeko zaurituak. Ikuskari atsegintsuak be bai bertotik ikusteko. Ertzila' ren zumardi edo egurastokia sufe aldetik; itxas ta mendi aldia albotik, eta atze aldetik, Batzoki ta eŕi saŕeria.

Gaur aŕte eun ta eundez zauriŕu bapestu dira etxe onetan: eta eurotariko asko osatuta gudaratu dira. Ganera zauriturik geienak euzkaldun euzkotaŕak izan dira; españaŕik ere ikusten dira noiz bein, baño gitxi.

Ofa of gure eŕitxuko gudari sendategia: guda iltzale onetako zauritu ta gaxuari arpegi emoteko egiñikoa. Beteta dau Bermeo'k gizadi arlo maitasuntsua.

Utzunetxu bat dago etxe onetan, eta bera auxe da: ontasun gustiaren eŕukioŕa dan Kurutzerik eztago. Ori da gure elburua: soin ta gogoaren osasun zaindaria.

Goi-bidia, Kurutze deuna.

URKIDI

(Bermeo'ko gudarostetik.)

Nor da Kisto'ren arerio?

Eleizaren baŕutitik igesika juan dira gaurko egunean langile asko. Aŕigaria, benetan Zer jazo da emen? Bai al-dabe txiroak eta langileak eta indaŕgeak eta elbaŕiak Kisto baño lagun oberik?

Eta orain Kisto'ren aŕtaldera ezkertaŕak zelanbait erakaŕi nai ba'doguz, Eleizaren baŕutira beŕekari nai ba'doguz, zelan jokatu? Pekatariakandik igesi ibiliko ete-litzake? Gofotoa bekalzkeria ta turmoia gere agoetan doguzala? Ut! Ez dira oŕelakoak Kisto'ren jaŕaitzale zintzoak. Pekatariakana juan beaŕa dago ta erakutsi zelakoa dan Kisto. Ez al-da ori biderik onena? Eginbeaŕ edeŕa, gañera!

Josu! Maitasun-eŕeka, bigundasun utsa, apalduna! Noznai eta edozelan erabili dogu kistaŕ askok agoartean Kisto'ren izena; baña zenbat eta-dira Kisto'ren gogoa egoki, sakonki ta beaŕ dan legez ezagutzen dabenak? Kisto beaŕ dan neuŕian ezagutzeko, naikoa al-da ezpanak otoi-marmaŕean zaratatsu erabiltea? Naikoa al-da bulaŕ-gañari ukabilez daubaka izugaŕiak egoztea? Ez. Ori guzti ori egin aŕen, asko ta asko dira Kisto'ren biotzekorik ezer ez daikenak. Aren gogoa ezagutzeko, beste zerbait geiago be beaŕ da.

Amaika aldiz aŕiturik gelditu izan naz ezkeŕaldeko gizon baŕuen itzak entzunda. Ara zer diñoan eurotariko batek: "Eskualdekoen aŕokeria ta biotz-gogoŕkeria oarturik, zelan erabili leikie euren bidez Kisto'ren izena?" Beste norbaitek esan dau, baŕiz, Kisto'en ordezkari batzuk izkiluak eskuetan dabezala urten diralako. Kisto'en aldezle baño azpiratzale obeto dirudiela. Ezkeŕaldekoak diñoezan gauzak dira oneik; baña ez al-dago askotan oŕeako zerbait esateko biderik?

Gaurko egunean Kisto ludira jatsiko ba'litz, gizon askok gizartean darabilen buŕuka amoŕatuaren aurean, zelan jokatuko litzake? Aberatsen, indartsuen eta azpiratzaileen laguntzale izango ete-litzake? Indargeak eta txiroak ostikopean eta zigoŕpean erabiliko al-laukez? Pekatariengandik igesi ibiliko ete-litzake? Ez. Goazan Ebanjelioa'ra; auxe baita biderik onena Kisto'ren gogoa sakonki ezagutzeko.

Aberatsak eta altsuak? Ez dira txaŕak berez aberastasuna ta ondasunak gizon zintzo baten eskuan. Ordea, ondasun oŕeik, norberak gura daun erara earbiltzekoak al-dira? Ez orixe, ez. Anaiei laguntzeko; jatekorik eta janztekoriz ez daukanaŕi laguntzeko baño; menpekoai eskuzabal laguntzeko baño...

Indaŕzale? Ez da egundo izan indaŕzale Kisto. Bein aŕiu eban eskuan zigoŕa eta bai al-dakizue zertarako? Eleiz-baŕuan saleroskotan ebiltzan gizonak uxatu ta zigoŕkatzeko. Bein eŕi batera iritsi zanean, angoak aŕikatu ebelako, bere ikasle bik asaŕetuta, esan eutsoen: **"Zergatik ez dozu eŕeten zeruko suaz eŕi osoa?"** Ara zer erantzun eutsen: **"Turmoiaren semeak zarie; ez ninduan nire Aitak oŕetarako bialdu"**, Nekaldi-garaian be, apal-ostean gudariak ufeatu yakozanean, Kepa'k, bere izkiluta aterata, belaŕia moztu eutson gudariotako bateri. Josu'k, baña, asaŕe erantzun eutson: **"Kepa, sartu egik zoŕora ezpata ori".**

Oŕez ganera, gexoen, elbaŕien eta txiroen lagunik oneña izan zan. Ez al-dauskue ederto azaltzen Kisto'ren biotz-bigundasuna itz oneixek: **"Itxi egiezue umetxoai Nigana uŕeratzen?"** Nun aurkitu geinke Josu'rena baño biotz eŕukioŕagorik eta gozoagorik? Nekaldia asi baño len, **Jon bulaŕ-ganera makurtu yakonean, maiteki azaldu eutsoen bere biotz-bera. Ara or Kisto.** Baña turmoiaren seme izan nai dabe kistaŕ askok; **ez bigun, ez maitale; ez txiroen eta indargeen aldezizale. Tamala!**

B.

Jakin nairik

Azategi ta Asula'taŕ Martiño'k, Bilbao la Vieja, 11, 2'gn. bizi danak, Beriz'en, Andikona auzuan bizi zan Asula Untzueta'taŕ Martin'en baŕi jakin nai dau.

***

Antzuola'taŕ Miren eta Antzuola'taŕ Gergore Zaldibar'tik ila onen 25'gn. aberekaz Gernika'runtz urten eben eta euren baŕirik ez dakie.

"Euzko Laguntza" ontara, Gran Vía, 41, 2'gn. jo begie, ala Begoña'ko Adoratrices gudaletxera, Gofotxategi'taŕ Koperin'etzaz galdetuaz.

***

Eupeme Deuna mendira bidegiñen jaŕdun eben Castilla brigadakoa auek, Landa'taŕ Ixidor, Alberdi'taŕ Joseba Mikel eta Bayona'taŕ Eli, "Euzko Laguntza" ontara, Gran Vía, 41, 2'gn. eldu bekigue, eta emendik, Zeberio'taŕ Seber'egana jo begie.

"EGUNA" EUZKEL EGUNKARI ABERTZALEA, GIZARTE ZUZENTZA ALDEZLEA IZANGO DA; LANGILE ESKUBIDE ALDEZLEA ZUZENTZA BIDEZ, LANGILE ABERTZALE OREK ¿EZ OTE DIGUZU ZUBE LAGUNTZA EMANGO?

TARTEKA-MARTEKA

O Duffy'ren jaŕaitzalleak España'tik kanpora aren aginduz. Italiaŕak España'n. - Alemania'ri koipea emoten Iruña'n. Aberats baten esku - zabaltasuna. - Nasteak, Brasil'en. March'en ibillerak. - Beste izpaŕak.

BRASIL'GO NASTEAK

New York.—Zarata eta nasteak egon dira Brasil'en, militaŕak toki batzuetan esaŕe eta altzauteko eran jagi diralako. Egoera okeŕa da Brasil'goa.

SU-GAI UGARI

Mitan.—Oraintsu portu onetatik itu mila ta erdi tonelada su-gai bialdu ziran España'ra.

AINTZAT BE EZTABE ARTU

Londres.—Ingeles ontziak merkantiel emoten dautsen laguntasuna dala-ta, Franco'ren Gobernuak Inglateŕa'ri agertu dautson asaŕea, aintzat be eztabe artu emen.

EMAKUMIAK ETA UMIAK ATARATEKO

Londres. — España'ri laguntzeko sortu dan batzordekoak esan dabenetik, gogotsu eta bizi lan egiten diardue Bizkaya'tik emakume ta umiak kanpora atara al izateko.

Inglateŕa'ko Gobernuari eskari bat egin dautse era oŕetan.

Uste dan lez baiezkoa ba'litz, gudontzi eta merkante ugari bateko dira zertegin oŕetarako.

ALEMANIA IGORTZITEN

Iruña. — "Arriba España" izaŕingiak agertu dabenetik, Falange Española tankideak Alemania'ren aintzazko jai bat egingo dau.

Jai oŕetan Alemania, Italia eta Portugal'ko ereserkiak joko dira.

EUZKO URETARA

Londres. — "Resolution" akorazaduak Portsmouth'go portutik euzko uretarako urten dau.

ITALIAŔAK ESPAÑA'N

Roma.—San Bartolome, Espezia'n, sutsu lan egiten da kañoientzako gogorgaŕiak egiten. España'rako dira lan oneik.

TARDICIO EGAZKINLARIA

Roma.—Tardicio, egazkinlarien komandantea, Toledo'n dabil, españaŕ egazkinlari talde baten buru.

KARABIÑERUAK ESPAÑA'RA

Roma.—Igarotako ilean karabinieritako talde andi batek España'rako urten eban. Lau mila gitxienez izango ziran guretarikuak. Oŕez gañera bersaglieri taldetako batzuk be juan ziran eta seireun bat gudari.

Napoles'ko portu juan-etoŕiak etenbakuak dira.

Gaisotegi guztiak beterik dagoz eta egunero zabaltzen dira ospitaŕ eŕietatik zear.

EŻBIAŔ BAT

Paris.—Arintasuneko "record" dalakoa lortu nai eban Delmotte egazkinlariak ez biaŕ bat izan dau egazkin zelaŕtik urteterakuan eta ezin izan dau bere gurariŕik lortu, egazkiña apuŕtu zakolako.

Berak osorik urten eban.

MARCH'EN IBILERAK

Roma. — March andikiak España'rako urten dau "Rex" itxasontzian.

IRLANDAŔAK KANPORA

Dublin.—O'Duffy paxisten buruak bere jaŕaitzaliei dei egin dautse España'ko gudatik urten eta Irlanda'ratu biaitezan.

Ez dira jakin oraindik erabagi oŕen zegaitiak.

Gudalburu ori oraŕarte Franco'ren adiskide baro eta laguntzale eŕime izan da.

IKASTOLAK SAŔATU

Paris. — Irakaskintza'ko arduradunak emon daben agindua beteaz, gaur ikastola guztiak saŕatuta egongo dira.

Uste da belbilak bo geratuko diralako. Taxistak zortzirak orduko ez dira ibiliko.

S. O. S.

Tanger.—Oraindik aungia dan lain ez dau ontzi batek S. O. S. bat zabaldu dau, paxisten ontzi batek jaŕaitzen eutsala adieraziaz.

Andik lastet baŕiro iuz egin eban, paxisten ontzi ori igesi joiala agertzen.

DIRUTZA OSOTU

Londres.—Aldezketarako zaba du zan eun miloeko daru laguntza beteta geratu da.

TURKIA ETA IRAK

Ankara.—Turkia eta Irak'en artean egiteko dan tratadurako asmoak ontzat artuak izan dira.

ESPAÑA'RAKO URTEN NAI EZ

Bolonia.—Castelnuaggiore'n eregimentu bat altzau zan, España'rako urten nai ezbalako.

Ori dala-ta detensiño ugari egin dira.

ABERATS BATEN ESKU ZABALTASUNA

New York.—Was'daŕ Juli'k aberats altsuak bere jauregia, ta bere ertl lanak New York'go estaduari eskl dautsoa. Eregalu oŕeikaz museo edeŕ bat egingo da.

Eregalu oŕen balioa ogei miloe dolaretara igongo da.

Aberats oŕek Europa'rako urten dau "Normandie" itxasontzean.

Españar gudako izpaŕak-eta

Asaŕe biziak Donostia'n falangetar eta eŕeketien artean

Agintaritzearen jabe egin nai dira alderdi bietakoak eta origaitik tiroka jardun dabe. - Alemania eta Italia'ri paxistak lur zatiak eskiñi dautsezana edozeñek daki. - Guda - oñetako gora - berak. - Eŕepublikaŕak Zaragoza'ko gudalekuak, Quinto'ko guda-lubanak eta Santa Quiteria'ko eleiz - atea suagatu ditue.

GIPUZKOA'KO GORABERAK; PAXISTEN MENDE BIZI DIRAÑEN LAŔIA

Valencia.—Donostia'tik iges egindako batek, uri oŕetan paxisten mende zelan bizi diran azaldu dautso Gobernua'ri.

Alemandaŕ guda-aituen zuzendaripean Irun'en eta Ondaŕabia'n guda-lubanak egiten ei-diñardue ta San Marcial mendian kañoi indartsuak ipiñi ei-dabez Auñamendi edo Pirineos'etara begira.

Guda-lubanak lan oŕeitan euron aldeko ez diran langileak egiten ei-dabe beaŕa ta iru eŕealeko lau-zariaren amaŕ eta amabi orduren buruan lan egin beaŕ izaten dabe.

Donostia'n palankista ta reketeak zein nagusi izango ei-dabiltz ta demanda oŕeik-bide lantzian-lantzian izaten dabez asaŕeak eta asaŕeok tiroka atontzen dabez. Oraintsu asaŕe oŕeik zirala-ta, reketeen buruzagi bi erail ebezan paxistak.

Gerotxoago reketeak paxisten "Unidad" izpaŕingiko Artezkaritzo bera sartu nai izan eben indaŕez. Ertzaiñak atondu beaŕ izan ebezan eztabaida ta buŕukok eta buŕuka oreitan amaika il ziran eta amairu zauritu.

Guda-agintaririk geienak reketeen -aldeko dira; Franco baiña palankista-zale da ta palankiston eskuetan dago.

Gitxi ta belu ordaintzen dabez ordain-zoŕak. Karabiñeruen mila bana laurleko dautsez zor.

Orio'tik Getaria'tik eta beste eritxu batzuetatik eŕitaŕak alde egin dabe. Utsik egozan etxeetan egona ostu egin dabe; etxe-tresna onentxuenak beste toki batzuetara eruan dabez ta dira, pitxi ta baliodun guztiak arakatzen ebiltzanok euron artean banandu dabez.

Motriko'ko etxe guztietan lapurtu dabe zertxobait; batzuetan egoan guztia.

Gosez ¡ñor il ezdaiten eŕi-jantokiok egin dabez ta jantoki oŕeitan janari onik ez dabe emoten.

Salerosketea itota dago; paxista -agintariak diruz uŕi dabiltz-ta, salerosketarioi mila ta bi milaka izun edo multak leporatu dautsez ta 24 orduren buruan izunok ordaintzen ez ebazanak atxilotu ta astindu egiten izan dabez.

Neskatila ta emakumeei, batez, be, ogeitik ogei ta bost urterartekoei ifundiko lotsagaldukokeriak egin dautsez ta geienoi moztu dautsez ule ak.

Lenengotan "rizinoa" emoten eutsen, baiña "mama gozo" ori uŕitu egin yakoen eta orain ez dauke.

Oŕen ordez orain emakumeei agiñak ataraten dautsez.

Motriko'n erailketa asko egin dabez. Aŕizabalaga'taŕ Alexander erail eben lenen eta gudari buruzagiak berak gizon oŕek eŕurik ez eukena na -ekiala esan ebanaŕen ondartza nagusian erail eben, agindu bete beaŕeko zala-ta.

Santa Catalina ugarte ondora jaurtzen dabez auzi ta epai bage erailten dabezanen gorpuak.

Ugutzaterakoan edo bautizoan umeei euzkel izenak ezartea gebenduta dago. Abeŕtzale diran eta erail ez dabezan abadeak Castilla'ra eruaten dabez. Sail oŕetara 250 gipuzkoaŕ abade baiño geiago bialdu ei-dabez.

Tabakoak uŕi dabe ta zigaŕo-mutxikiñak batzeko kutxa bereziak ipiñi dabez ta tabako-oŕi ondokin oŕeikin egindako zigaŕotxoak bialtzen dautsez gudariei.

Iñork ez dau ezer erein eta erail ez dabezan aŕantzalea, beste erkaldaŕen mende dagozan portuetara iges egin dabe.

Orixe da Gipuzkoa'ko bizi bide ta egoera.

NAI BA-DABE BAIÑA EZ DABE LORTUKO

Valencia.—Izparlaritza ta Zabalkunde Zaingoa'n oaŕ auxe emon dabe:

"Asaldari buruzagiok Alemania'ri ta Italia'ri luŕ sailak emon dautsezana edozeiñek daki: España'ren agindupe dagon Marruecos, ugarteak, Galizia'ko portuak eta Andalucia erbestetai odol zaleon mende dagoz ta guda-toki bereziak egin dabez sail oŕeitan.

Irako ilabetean erkaldaŕ-gudarosteak emon dautsezan ostikadak zuritu ta bardindu naiz dabiltz.

Auŕe-aldeetako ta atzeetako paxistok adorekatuta dagoz. Egunean baiño egunean gudari geiago datoz erkaldaŕengana paxistoi daukezanaŕen, atze-aldekuok noiz-edo-bein goragoraka asi egiten dira. Orixe jazo da Granada'n, be. Oŕein azkena zein izan daiken igartea ez da zail.

Euron artekuak adoretsu ta urtepidaren bat idoroteko asmoz asi dabe Euzkadi'ko joaldioi Alemania-Italia'ko Guda-Agintaritza Nagusia'ren aginduz. Laŕi egozan eta baretu egin nai dabez euron buruak.

Asaldari Gudalburu ta euron laguntzen asmuak poŕot egingo dabe; Euzkotaŕen kemen eta adoreak paxiston aŕokeriak lasteŕ uxatuko dauz.

Euzkadi'ko guda-oiñetako goraberak geitu ta aldatu begiez; aipeŕik izango yakoe baiña.

Zemendia'n Madrid lasteŕ eskuratu ebela iragaŕi eben baiña Madrid inguruan jausi dira paxiston gudaririk onenak eta poŕot egin eben paxiston asmuak.

Bizkaya'ko guda-sailetan, be, orixe jazoko da. Euzkotaŕak euron etxeak biŕundu ta eŕiak suagatzen dabezanon aurka goŕoto biziz buŕukatzen dira.

Paxistakeria bein betiko zapaldu -arte euzkotaŕak euron sailai eutsiko dautsena ulse osoz uste dogu.

Erkaldaŕak beste guda-oin guztietatik joten ekingo dautse ta olantxe lagunduko dause euzkotaŕoi, paxisto buŕabasok azpiratu al dagiezan.

Paxisten artean zagozan erkaldaŕok, zuek, be, egin alegiñak paxistakeri buŕuka onek motz egin dagian."

GUDA-OIŃETAKO GORABERAK

Madrid.—Gudari-oin geienetan bakotan dagoz. Madrid'ko uria suagatzen asi dira paxistok kañoiekin, baiña erkaldaŕak ekin dautsenean ixildu egin dira.

El Escorial inguruan oraintsu erkaldaŕak kendu eutsezan guda-tokiak eskuratu nai izan dabez paxistok; ez dabez lortu baiña.

Talavera del Tajo'tik Toledo'rako bitartea dabe ordu batzuen buruan erkaldaŕak.

Euzko-guda oiñetan dira aldi onetako buŕukerik gogoŕenak.

ARAGON'GO GUDA-OIŃETAN

Barcelona. — Aragon'go guda-sail batzuetan jardunik asko izan da.

Areriuok erkaldaŕen guda-toki batzuk suagatu dabez.

Erkaldaŕen egazkiñak Zaragoza'ko guda-tokiak, Quinto'ko guda-lubanak eta Santa Quiteria ermita edo basatxaunoa suagatu dabez.

San Jorge'ren ermita ingurutik dunbadoska asi diran paxisten kañoiak ixildu beaŕa izan dabe, erkaldaŕenak ekin dautsenean.

AÑOTZ BAT TXAŔA DA EUZKADI'RENTZAT, BAÑA ASKOZAZ TXAŔAGO DA BERA EZAGUTURIK ABERTZALIA EZTAN EUZKOTAŔA.

IRAKURRI TA ZABALDU

Euzko - Gudarozkiaren aldizkingia

Eleizea ta paxistakeria

Degrelle'ren aurka ta Van Zeeland'en alde, edo gogorkeriaren aurka ta azkaltasunaren alde?

Izpaŕingi batzuk diñoena

Jofalaren 15'garengo zenbakian "Tribune des Nations" ezkeŕtaŕ izpaŕingiak Pierre Dominique'ren idazlan bat argitaltzen dau ta idazlan oŕetan Vaticano'k Lateŕiekin izan dabezan jokabideei buruz diñardu.

Idazlan ori Belgika'n Degrelle'ri auteskundeetan emon dautsen ostikadea dala-ta egiña da.

"Degrelle'k ostikadea artu beaŕ ebena jakiña zan—diño—; oŕen ostikada aundia baiña Malinas'ko artzobispo edo Gongoitzain eta Belgika'ko gotzain nagusi dan Van Roey kardenalaren jokaleaŕen emon dautse.

Kardenaloi zaan egoan eta auteskundegunoi baiño egun bi aurerago, Degrelle'ri egundoko lapokadea emon eutson.

Politika - sailean be, ezkeŕ - ezkeŕekoen aurka Vaticano'k jokatzea iñori be, ez yako miragaŕi. Eskumataŕi - eskumataŕen edo eskumataŕegi diranen aurka jardutea, be, eskeŕekoen aurka egitea bezenbat da, eleizearentzat lagegikeriak, naiz batekoak naiz bestekoak txaŕ dira-ta.

Orixe egin dau Degrelle'ren auzi edo buŕuka oŕetan, be. Vaticano'k edo Aita Santuak gogo-aginpidea ta lateŕi edo gizarte-aginpidea beti bereiztu izan dauz. Lateŕi edo estadu aginpidean, be, iñoz sartu nai izan dabe, sartze oŕek gogo -aginpidea oiñaŕi izateka ta eŕegeak orduan Aita Santuen aurka, be, jagi izan dira.

Gogo aginpide edo eleiz-aginpidepe diranetan, iñoren jardun eta eragozpenakaŕen, Aita Santuak euron eskubideei beti eutsi izan dautse.

Kistaŕ edo katoliko ez ziran lateŕi edo estaduen aurka beti jokatu izan dabe Doipuruak bizi-bizi, aldiko goraberak eskatzen eben senean.

XVI eunkia ezkero, agintaritza bakaŕ ta guztizko lateŕi edo estaduekin beti izan dauz eleizeak bere matrakak. Matraka oŕeik orain be, ba-diraue lateŕi edo estaduaren gain beste aginpiderik onartzen ez daben lateŕiekin.

Lateŕi oŕeik euron pilosopi-oñaŕien aurka dan irakasketarik Eleizeak egiterik ez dabe laketzen. Eleizeari bere irakasketak egiteko eskubidea ukatu egiten dautse.

Aita Santuak ezkeŕ - ezkeŕtaŕ diranak bakaŕik ez dauz, gaiztetsi, eskumataŕegi diran eta abeŕtzalekeri aldezleak, be, txaŕetsi izan dauz. Oŕa Prantzia'n Action Francaise eskumataŕen batza oŕeŕetsita.

Alemania'n protestantismo - ezkero izan dabeŕik buŕukarik gogoŕena jasan beaŕa dau Eleizeak.

Alemandaŕok begiko etsita, oŕein joŕotzak jaŕaitzen dabezan españaŕ palankistekin, be, buŕukatu beaŕa Eleizeak izatea ba-daike."

* * *

Degrelle'ren ostikadea-ezkero alemandaŕ izpaŕingiak, guztiz pipertuta Malinas'ko gongotzaiñaren aurka esan-alakoak esaten dabez.

"Auteskundeok Van Zeeland'ek bariku, Malinas'ko gongotzaiñak irabazi dauz", iñoan biaramonez "Volkischen Beobachter" izpaŕingiak. Degrelle'k eleiztaŕoi bide oŕetatik jaraitzea eragotzi ala euroi men egin erabagi daike orain.

Eleizeak Van Zeeland'en alde, politika -tsaŕen ez eban egin, ezta Van Zeeland zalako be. Askaltzale ta aldundizale ez dau agertu bere burua, azkaltzale ta aldundizale dan gizonari botoa emoteko esan ebanaŕen.

Degrelle abeŕtzalekeriaren aldezle da ta abeŕtzalekeri onartzea zan berofi autarkia emonerazotea. Eleizeak abeŕtzaletasunik ez dau gaiztetsi baiña, abeŕtzalekeria baiño.

Azkaltzale diran lateŕiekin baiño, agintaritza bakaŕdun lateŕiekin buŕuka geiago izan dau Eleizeak. Azkaltzale lateŕiekin ostinguekin baizen buruba odoltsurik Prantzia'kin matxiñada aldian izan ezik, ez dau izan.

Asko jasan dau indarkeria Europa'n nausitu zan ezkero. Politika arazoetan guda-ekanduz jokatu nai dabe oraingo ditadoreak. Eleizea baiña, ez da gudazale, bakezale baiño.

Eleizeak bere egingo bete daiken biderik onena, bakea dau; bake-gi'rotan asko, be, joritsuago agertzen da Eleizea.

XIX eta XX eunki asikeran, azkaltzaletasun-aldirik beroenean, eleizeak bere ordezkariak bastaŕ guztietara edatu al izan dauz.

Eleizea ez da indaŕkeri-aldezle; indaŕkeria beti gaiztetsi dau Eleizeak.

ITXASOAN

(Lenengo oŕitik datoŕ)

juan giñanean onelaxe agertu euskuen "España"ren ondatzea:

Ezekien baña merkantea ingelesa ala frantzetaŕa ete zan.

"España" lau jeoŕetik lau milara ondoratu zau.

"ESPAÑA" GUDONTZIAREN ZEAZTASUNAK

Paxistak euren agindupean erabili daben gudontzi au, "Jaime I" erkaldaŕak dabenaren antzekoa izan da, ta españaŕ estaduak eurok baño beste akorazadurik ez dau izan aspaldion.

Gudontzi galdu baŕi oŕek, "Alfonso XIII" eban izena egiterakoan; erkala ezaŕi ebenean estadu ortan "España" izana ezaŕi eutsen.

1912'gn. uretara bota eben; 15.452 tonelada erabilten ebazan geienez, baña gogienengo mala, 15.700 eban. Bere kaskoa galtzairuzkoa zan.

Luzera geiena, 139,96 metro.
Zabalera, 24 m.
Goibeia, goienetik, 12,74 m.
Kalaua, 7,77 m.
Zaldi-indar, 11.270.
Lau elize.
Lasterka biziena, 19,69 mila ordoko.
Galtzairu estalkiaren neuriak:
Saietsak, 75'tik 250 m/m.
Uŕ-aldetan, 100'dik 230 m/m.
Toŕietan, 280 m/m.

GIZONAK

Ontzia uretara zanean, ontzi-gizonak 854 ziran izentauak.

GUDA-TRESNAK

Egin zanean zituen guda tresna, uŕengo oneik dira. Alabaña, gudontzi paxistak oraingoan aleman eta italiaŕak obeki ornidu dituezenez, gai obeak ezaŕiaz, gaurkoan zeintzuk tresna izan dituan ezin guk adirazi.

KAÑOIAK

Zortzi Vickers, 305'ekoak.
Ogei Vickers, 101'ekoak.
Bi, 47'koak.
Bi, 57'koak.
Bi, Maxin, 37'koak.
Torpedoak botateko zulorik ez eban.

MAKIÑAK

Parsons turtikak, lau tornilokoak.
15.500 zaldi-indaŕeko galdarak, 19'5 nudo lasterka egiteko gai diranak.
Aŕikatza, geienbat, 900 tonelada.
Geienik, 1.500 tonelada, eta orio loia, 20.

Ibili leikena, 5.000 mila, orduko 10 nudo egiñaz. Eta, 3.100 mila, 16,75 nudotan.

El Ferrol'en asi eben 1910'gn. urtean, eta osoro orniduta 1915'gn. egoan.

Saioak egiterakoan, lasterka geienik, 20,36 nudo orduko egin zituan.

Idaz-sariketa

Gudaz gero idazten asitako Idazle berientzat.

Idazle baŕiok talde bitan bereziko dira. ERI IDAZLEAK GUDARI IDAZLEAK.

Lenengo taldekoentzat sari abek ipinten ditugu:
Lenengo saria, 200 laurleko.
Bigaŕen saria, 100.
Irugaŕen saria, 50.
Bigaŕen taldekoentzat sari onexek jarten doguz:
Lenengo saria, 250 laurleko.
Bigaŕen saria, 200.
Irugaŕen saria, 150.
Laugaŕen saria, 100.
Boskaŕen saria, 50.

Gudea baño lenago idazten izan daben. IDAZLE ZAAŔENTZAT.

Idazle zaaŕak talde bitan bereziko dira: ERI IDAZLE ZAAŔAK GUDARI IDAZLE ZAAŔAK.

Lenengo taldekoentzat sari abek ipinten ditugu:
Lenengo saria, 200 laurleko.
Bigaŕen saria, 100.
Irugaŕen saria, 50.
Bigaŕen taldekoentzat sari onexek jartzen doguz:
Lenengo saria, 250 laurleko.
Bigaŕen saria, 200.
Irugaŕen saria, 150.
Laugaŕen saria, 100.
Boskaŕen saria, 50.

BALDINTZAK

Jartzen dan Idaz Sariketa au gudea amaitu daitenean ebatziko da. Erabagia emoteko Euzkeldun Irakurle Batza'k Epale Batzorde bat izentauko dau.

Idazleak edozein gai erabiliteko askatasuna izango dabe, naiz elerti utsezkoak, naiz eŕi izpaŕak. Gudariak, baña, egokiago izango da gudeatzako (guda oñetakoak eta abar) gayak erabiltea.

Erabagia emoteko, idazle bakotxaren lanari buruz, xeetasun onek gogoan eukiko dira:

Zenbat idatzi dauz: asko ala gitxi.

Bakotxak idatzi daun gustia gogoan eukiko da, osoan ikusteko zelakoa izandan bere lana.

Sariketari buruz gaŕantzirik geyen emongo yakona auxe da:

a) Laburki idaztea.

g) Yoskera garbia erabiltzea. Laburki idazteak eztau esan nai, oso labur idatzi beaŕ izango danik, erabiliko dan gaya ondo borobilduta erabiltea baizik. Eztaitela izan, adibidez, amaŕ lerotan, ondo biribilduta, argi ta egoki esan leikena, ogetamaŕ lefo erabiltea, esan nai dan berbera, puztuta batera ta bestera, idazkia luzetuaz esateko. Beraz, ba, laburtasunak eztau esan nai, nai ta nai-ez, idazkiak laburŕak izan beaŕ dabela, gayak laburki erabiltea baño. Izan liteke gaya gaŕantzi undikoa eta luze azaldu beaŕa izatea. Alan izan ezkero, luze izatea egoki izango da, baña al dala luzeegi ez egin, luzeegiak irakurlea bildurtu egiten du-ta.

esan nai itzetan euzkera garbi-garbia kutsu gabea, erabili izan bearko danik.

Yoskera garbia erabiltzeaz, eztogu Esan nai doguna da euzkera bere arauz idatzi beaŕ dala ez erderaren arauz.

Yoskeraz (itzak lotukeran eta esakunak lotukeran) garbitasuna zeatz erabili beaŕ da. Ondo yosi euzkerea naiz ta erderazo itzen batzuk erabili beaŕ. Ez uste izan erderazko itzik ez erabiltzea garbitasunik asko dala. Ez ba'leiteke erderazko itzik ez erabiltea ta erderazko yoskeraz yosita egotea.

Idazleak, naiz bizkaieraz naiz gipuzkeraz gogozko idazkerea erabili al izango dabe, naiz izpiyakeraduna (fonética'duna) naiz izpiyakera bakoa.

Idazleak euren lenengo lana bidaldu dayenean (dezatenean) EGUNA'ren Artezkariari edo Euzkeldun Irakurle Batzari yakin ereziko dautse Sariketari buruz (con relación al concurso) zein taldetan sartzea yagoken.

BATZORDE EPAIKARIAK

Erabagia emoteko (gudea amaituta emongo da) talde bakotxerako Batzorde Epaikari bat izentauko da. Batzorde bakotxa euzkeltzale bikain bik osotuko dabe. Bata Bizkai'ko euzkerearentzat eta bestea Gipuzkoa'rentzat.

Talde bakotxean, Bizkai'ko Epaikaŕak Bizkayeraz argitaldutako idazlanen arduŕea izango dau ta Gipuzkoa'koak gipuzkeraz argitaldutakoena. Epaikari bakotxak berak aztertutako idazlanaren epaya beingoan emongo dau, azkenerako danak epaitzeko utzi barik. Astertutako idazlana 'dazkazal edo sobre baten (baŕuan epaya dala) sartuko dau ta Euzkeldun Irakurle Batza'ri bidalduko dautso.

Epaya puntoz emango da, onetaraxet Puntorik geyen ogei izango dira ta idazki bakotxari epaikariak deritxon beste punto edo ogairen emongo dautsoz. Sariketea amaitu daitenean idazkazabal edo sobriak idegiko dira ta ikusiko da baiaz beste zenbat ogeiren edo punto izan dauzan bakotxak. Eta ogeirenez ogeiren edo puntoz punto (gogoan arturik bakotxak egin daun lana, ba puntuetan bardiñean egonaŕen ezin bardindu izango dira bost idazlan egin dituana ta beŕogetamaŕ egin dituana) goyen dagozanari emongo yakez sariak.

Sari banaketea egiteko Euzkeldun Irakurle Batza'k yai aundi ta edeŕ bat antolatuko du.

EUZKELDUN IRAKURLE BATZA.

PAXISTEN AURKA

AUPA MUTILLAK! AURRERA!

Oinkada bat bere ez atzera! Beti aurera! Gaste bulartsu, adoretsu ta indartsuak ez dabe atzera begiratu bear!-Guztiok oldozkun batégaz, guztiok azken batégaz areriua zapaldu ta Euzkadi'ren azkatasun billa!

Garoño'ko tontorretatik arerioa atzera jaurti zan atzo

LABURPENA

Aupa mutillak! Aurera!

Egun lafi ta neketsuak igaroten gabiltz.

Areriua gibil-gibeleraño sartu yaku.

Geiago ez.

Oinkadarik ez dau geiago egingo aurrontz beintzat.

Gure mutilak, lenengo egunetako bildurrak eta estutasunak igaro ondoren indartu eta bizituten asiak dira.

Ez gendun gitxiagorik itxaroten eurekandik.

Unerik latzenean itxaropen bizia euki dogu eurekan.

Areriuak, egazkiñen indarra, aizetako jabe ta jaun bakar lez ibili dan unetan egin izan al dituan auferakadak luzaroko izango etzirala uste gendun.

Eta gure usteak ez dira motz geratu gaingoan.

Indarrak batuaz, makal uneak bastartu ta adoretuaz, gure mutilak atzo bertan areriuari estutasun ugari ipiñi eutsen. Eta estutasun oreitan, atzera egitera biartu eben.

Igesean etorran gudaroste koldar baten antzean egozala uste ebenak okerr dagoz.

Gure mutiletan bildurr eta ikarea sartu ondoren. Bilbao'raño erraz ta nasai sartubo zirala uste ebenak, euren zorakeritik urten biarko dabe.

Atzo bertan ikasbide edefa emon geuntsan arerioari.

Joaldiak-joaldi, egun osua gure gudariena izan zala esan geinke, iñok guzurtauko gaitun bilduf barik.

Gernika'tik Durango'rañoko guda oin guztiak gureak izan ziran joten ebenak. Eta arerioak, une labur batzuetan izan ezik, gure joaldoei eutsi eziñez atzerantz egin biaf izan eban.

Gure mutilen adoregetzea ez da luzarorako izan, uste gendun lez.

Atzo, aurerantz egiteko asmoekaz asi giran eta aurera egin eben.

Auferaka ofeik beste egunetan jarraituko daben ustea dogu.

Euzkadi'ren ikuriña ez da beintzat makurtuko paxisten aurean.

Aupa mutilak! Aurera!

GERNIKA-DURANGO'KO GUDA-OÑETAN

Itxaropentsu gagoz.

Atzoko joaldiak ainbesterako biderik emoten dauskue.

Atzo gure mutilak joaldietarako gogoz agertu ziran.

Eguraldi ona eguan eta areriuak aurrerako egunetan jegez, bere egazkiñen bidez lan oker bat egingo ete euskun bildurres egon gintzan.

Paxisten egazkiñak agertu ta ibili ziran.

Gernika'tik Durango'ra eta efi bi onein aldeak suagatuten lanik egin eben.

Beste egunetako indarrez eta nasaitasunez ezeben egin orraitik.

Eta eurak lortu ebezan ondorenak be ainbesterik izan etzirala ezin ukatu.

Eurak mendietan ibili arren, batetik bestera guda-oñak suagatzen jardun aren, gure mutilak, arerioari atzera egiteko asmotan jagi-ziran-eta, atzera eragin eutsen mendi tontor batzuk artuaz.

Joaldiak joaldi egin biaf izan ziran mendi ofeik arerioari kentzeko.

Ekiñaldiak-ekiñaldi, baña asmo ona egi biautu zan.

Garai ingurutan egon ziran joaldirik geienak.

Alde onetan mendi bat bakarrik; bi ta iru arerioari artu yakozan indarrez ta kemenez.

Arerioak, mendi ofeik laga baño len, bere arma guztiak lanean ipiñi ebazan, aldo batetik bestera sua zabalduaz.

Artileriaz gogoz jo ginduezan, era berean egazkiñekaz eta arma-ibiltariekaz.

Ala ta be gure mutilei eusterik ezin lortu, eurak eroen auferakadeari eutsiten gaitz eta neketsu zan-eta.

Eta aspaldikorik zigorrik andiena emon yakola esaten ba'dogu be guzurrik ez dogu izango. Arerioak, bere mendietan eusteko asmoz ipiñi eban gotorkeria, etzan makala izan. Origairik geiendat artu eban zigor ori.

Garoño'n eukazan toki guztiak artu yakozan joaldi ta b rukaldi neketsuen ondoren.

Gernika aldean bera izan zan une batzuetan, eta moltso banatsuekaz jo nai izan ebana. Tarteta-tarteka gudar' moltso batzuk auferatu ta eurekaz mendiak artu edo beintzat gure tokietaraño sartu nai izan eban. Astun urten eutson baña, bere asmo ziallak.

Tarteka eta moltso banaketan agertzen ziran gudariok gure mutilen indarrari arpegi emon beafean aurkitzen zirran eta euren gogorik bete barik, atzeratzera beartuak aurkitu ziran ziran, aurera egitea bururatu eben guztieta. Eta beti atzeratzea lortu ebenik esango ba'gendu, guzurra esango genduke, safitan atzerarik egin barik, betiko jarrtia besterik lortu ezebalako.

Era orretan egin ebazan joaldi guztiak kaltegai izan yakozan. Ezer lortu barik beretzat galdute izan ziralako.

Gernika ingurutan be tontor batzuen jaube egitea lortu gendun

Auferakada baten Arratzu'raño sartzea lortu eben gure mutilak. Gero baña, gure agintariak alantxe agindu ebelako, barriro atzeratu ziran, lenengotan eukezan tokietaraño.

Gabean oraitik gogor jokatzen zan ta riro.

Guda oñetatik atara gendun itxaropens ez da makala.

Iñoiz ustekabe agertu izan ba'gara be, joaldiak erantzuten ezebelako, edo arerioaren auferakadeaz minduta, atzo pozko eta itxaropentsu atara giñan.

Egunotako joaldiak garantzi andia izango dabe ta paxistak larri jarriko diralkoan gara.

BESTE GUDA-OÑETAN

Araba eta Burgos'k guda-oñetan gora-beherarik ez, diño Guda Zaingoa'ren agiriak.

Eta alantxe da izan be.

Aspaldikorik egunik baketsuen igaro zan atzo mendi oneitan.

Kañoiak, tarteka izan ezik, jx'l edo makal agertu ziran.

Pusilak bardin.

Gure gazteak, geldik ez egotearen edo arerioari bizitasuna agertzeañen jaurti ebezan tiro batzuk izan ezik, etzan zarratarik izan.

EGAZKIÑAK

Egazkiñetan dago guda onen indarra.

Ukatu eziña da ori.

Egazkiñak ibilten diran egunetan paxistak bizi ta bulartsu agertzen dira,

Berez ez daben indarra egazkin ofeik sartuten dautsela esan giñei.

Atzo bo paxisten egazkiñak gure mendiak suagatzen ibili ziran.

Batetik bestera, guda oin baten eta bestean tiro ugari zabaldu eben, euren izkilazkafen bidez.

Beste egunetako kalterik eta ondorenik lortu ezebenik ezin ukatu orraitik.

Eta euren indarra makalduaz, gure gudarien indarra ta kemena birtu ta berotu ziranik ezin eskutau.

Atzo egin al izan ebezan joaldiak dira ezaugarirrik agirien.

Guda oñetako agiriak

GABEKO IZPARRAK

EUZKADI

EUZKADI'KO GUDA-ZAINGOAK ATZO GABEKO AMARETAN EMANDAKO AGIRIA:

Bizkaia'ko guda-oñean

Gure gudariak, arerioaren lurra zapaldu ondoren, gogorrenik gogorren ekin diote Garoño'ko ta 430 gailureko guda-esiak astintzeari. Lekuok berriro lortu diluzte guretzat, arerioari kalteak-kalte egiñaz eta Regimiento Zaragoza'ko lau gudari atxilotuaz.

Paxistarrak, berenez, Durango-Egorrialdeko Atxarte'n daudenen lenengo guda-esiak zuratu nai izandidu baina, kalte-k-kalte, atzera eragin dieta gure gudariak.

Araba ta Burgos aldean

Ezer ez.

Arerioaren egazkiñak Gernika'ko ingurutik barutitako eri batzuk suagatu dituzte. Ez da kalterik izan.

100 egazkin-motor zeramazkian paxistar itxasontzi bat arrapatu erkaldar gudontziok

Almeria. — Erkaldarren gudontziak españar itxasontzi bat atxilotu dutela dion izparra jaso degu. Itxasontzi ori paxistar asaldarien aldekoa da ta guda-gai zama ugaria zeraman paxistarentzat.

卐 卐 卐

Valencia. — Erkaldar gudontziak itxasontzi bat atxilotu dutela dion izparra egiztatu da.

Gibraltar'eko uretan gertatu da ori.

Eraman-ekarietako itxasontzi bat, monarkiko ikurriña atzean, arerioaren kajaruntz zijoan.

Erkaldarren gudontziak bidera atera zitzaizkion, beste bide bat artzeko aolkatuaz.

Paxistar itxasontziak arduru aundiko zema zeraman, guda-gai zemat 100 egazkin-motor eta milaka kartutxo: Italia'n egiña dana.

Oraingoz ez degu gertatukoaren beste berirk.

Azkatasun... bixitz ondoren

Españar ta beste luditar iltzaliak gure Aberi gaxuan sortu dabien guda madarikatu onetan, Euzko agindariak garza eder ta txalogarirk asko osotu dabe bere erdi-azke bixitzako aldi laburrian. Gizarte Laguntza, Gudari umezurtzaren etxia, Neskatil-gordelekua, Gudari osategiak, Ikastola nagosia eta beste ainbat arlo garantzidun guda-bixi-bide latz-negartu au erriakorragoa ixan dayen Euzkadi'ko biztanliak.

Erraldoiaren lana da, ixan be, Euzko errak bere bizkar-ganian daruana.

Egia esateko: Ekintza ta jakintza -bidez guda arlo ikaragarri oneri arpegia emon ta aurera duan erria, azke ixateko be duin baño duiñago da: Bere buru jaube bakara.

Alatza dirudi Euzko semiaren egintzak.

Aldia elduko da, norbaitek benetako zuzutza egin ta argiro esango dabena Euzkadi-gaitik: Emen, Francia eta España bitartian bixi da eri zar ta txikitxu bat lur ta biztanlez, baña bere ekinza ta egiñetan ludiko errirk andiena ta jakiñena baño be askoz andiagoa dana. Ez'litze guzurra ixango.

Zearbitxu bakarrik ezagutu ta. Euzkadi, ire ixena edoietan dago. eta edoi-goietan ixango da, sakonago ezagutu zagiezanean. Alegindu adi, ba, ludiтar guztieri euren begi-gañeko zapi ballza kentzen betiko. Bultz, Euzkadi ludira.

Ondo egin, maitasun ta onoimenetan ezagutuеn dira errak; I. ere, Euzkadi, ludiak ezagututen ba'au, orregaitik ixango da.

Len gitxi ziran ire esagutzaliak: gauf asko. Ori zure bide bakarra: lana ta on egiña, Euzko Azkatasunaren lagi zuzena.

Arren, Goi-Jaun-Aitsua, lagundu guri erri gaxo au azkatuten Francia eta España'ren menpetik; Euzkadi geure Aberi bakarrian bixi gaitezan geure eraz, bake ta zoriontsu.

URKIDI.

(Bermeo'ko Gudarostetik.)

AROTZ BAT TXARA DA EUZKADI'RENTZAT, BAÑA ASKOZAZ TXARAGO DA BERA EZAGUTURIK ABERTZALIA EZTAN EUZKOTARA.

Atzoko eguna euzko zaingoetan

Leizaola jauna itzuli.-Urrengo astean orioa ta ardaua bananduko dira.- Belar - aziak salgei dagoz.-Utzitako errietako sendagilleak Osasun Zaingo'ra.-Emokun andiak.

Lendakaritza

TOYOS ETA GRACIA JAUNA LENDAKARITZAN

Atzo Zaingo'ratu giñanean Langinan ta Gizarte-Laguntzako burukide Toyos eta Gracia jauna lendakariarekin zeuren jardunaldika.

Orixe ta "España" itxaslapurra ondatu zutena izan ezik, ez degu beste izparrik jaso Zaingo ontan.

Saleroskeeta ta Orniketa

ARDAO TA ORIO-BANAKETA

Edari ta Eroskeetako zuzendari nagusi Lasa'tar Martin jaunak, ilaren bostgarenez, asteazkenez, ardao ta orioa banatuko dutela esan zigun, eta saltokietakoak saltzeko baimena gaur, larunbatez lortu bearko dute.

Beste errietakoak ilaren laugarenez jaso bearko dute agiri ori.

Orioa, beste errietakoentzat, ilaren laugarenez banatuko da, buruko liberdi, ta Bilbao'koentzat ilaren seigarenez, laurdena buruko.

Ondoren bi emakuntzen berri eman zigun Lasa jaunak.

Urkizu'tar Saba jauna, 100 laurleko.

Rodriguez Baños'tar Joseba jaunak (tabernaria), 50 laurleko.

卐 卐 卐

Orniketako zuzendari nagusi Beltran Jaunarekin ere izan gendun aldiri beti oi degunez. Ez zuan izparrik.

"Bizkaya" bou'ko agintari nagusi Arostegi jaunak Zaingo ontako bearrizanak ornitzeko Gizarte-Laguntza Zaingo'ra berogeitamar laurleko bialdu dituanaren berri bakarrik eman zigun.

Guda Zaingoa

Eritegietarako Zaingo ontan jaso diran emakuntzak:

Erti-etxeko langile ta idazkoletakoak, 220,25; Barandiaran eta Laguna-neko olako langileak, 152"75; D. Azpitarte'koak, 41,50; "El Bufalo" 'koak 197,70; Batxi itxasgo-batzakoak, 92,50; Astigarraga'nekoak, 52,85; El Gallo inguruko zulogile-taldekoak, 3.000; Lakabe'tar Maximina'neko langileak, 56; Lakabe'tar Maximina'k, 25; San Roman'dar Jon'ek, 12,50; I Andreu alargunareko osagile-langileak, 49,30; Txintxurreta ta Arregi'neko langileak, 198,16; Hermes'eneko argazkiondolariak, 140,32; Muñoz'dar Imanol'eneko bi langileak, 21.

Gizarte-Laguntza

EMAKUNTZA GIZENA

Zaingo'ko idazkari nagusi Bustos jaunak 10.000 laurlekoko emakuntza baten berri eman zigun izparkarioi. Gintzalari napar batek eman ditu laurlekook eta ez du bere izenik agertzerik nai izan.

ATZERRIRA JOAN BEAR DUTEN UMEAK

Ondoren izentatzen ditugun umeak, etxekoren batekin, gauf goizeko bederatzitaerdietatik ordubatak eta erdietaraiñokoan gure idazkola nagusietara (Areiltza, 7) agertu bearko dituzte euren buruak, osagileak aztertu egin bear dituzte euren buruak, osagileak aztertu egin bear dituzte-ta.

Eun lenengoak etorri bitez goizez eta arratsaldez besteak.

Larrea Betolaza'tar Errikarta Mirena ta Miren Begoñe, San Cristobal Gorrotxategi'tar Ane Miren, Gorostizu Agirre'tar Iñaki, Perea Pomposo'tar Kepa Mirena ta Karla Mirena, Agirezabalaga Tubet'dar Binjene ta Iñake, Arana Viota'tar Errikarta ta Andoni, Garate Perillan'dar Josu ta Koldobika, Dominguez Gonzalez'dar Karla ta Koldobika Mirena, Tubet Sualdea'tar Julen, Real Asua San Martin'dar Jokin, Urtiaga Villa'tar Tomase, Garaiza'tar Erroberta, Olabarrieta Sanjuan'dar Pele, Lertxundi Sanjuan'dar Iñaki Mirena ta Peli, Lertxundi Sanjuan'dar Miren Karmele, Minguez Alvarez'dar Agate ta Aintzane, Ontilera Etxeberria'tar Kepa, Bao Muerza'tar Emili, Iraragorri Garcia'tar Martin, Unzueta Arrieta'tar Errapel eta Ane Miren, Lopez Franco'tar Isabel, Mentxaka Arana'tar Olga, Gomez Setien'dar Jon eta Kepa, Gerrika-Etxebarria Ugalde'tar Iñaki, Gonzalez Diaz'dar Estepan eta Gentzane, Perez Monton'dar Aintzane.

Ormaetxea Amortza'tar Joseba ta Andoni, Bergara Trabanko'tar Agustin eta Likeri, Bergara Trabanko'tar Miren Lourdes, Alonso Cabrero'tar Amara, Urraka Zimorra'tar Jon Joseba, Pernanda ta Miren Pilare, Davalillos Marin'dar Errapel eta Kepa Mirena, Martin Villanueva'tar Binjen, Telitu Etxeberri'tar Pantzezka ta Imanol, Royo Weible'tar Josu, Ibarrondo Lasa'tar Errapel eta Imanol, Gallego'tar Miren Gotzone, Machado Calleja'tar Andoni, Gonzalez Olmedo'tar Miren Koldobika ta Peli, Perez Paradero'tar Zeli, Arazeli ta Gizane, Lanas Ruesgas'tar Joseba Koldobika ta Emili, Prieto Txana'tar Jule ta Miren Begoñe.

Perez Guerrero'tar Abel, Urresti Alvarez'tar Joseba, Jon eta Azkatasune, Vazquez Ares'tar Juli, Moral'dar Luki, Josu, Gaizkain eta Miren Gotzone, Saez Ruiz'dar Marka, Peli, Deunoro ta Karmele, Sarratxaga Larrazabal'dar Toma, Juli, Gotzon eta Andoni, Perez Blanco'tar Perderika Karla ta Joseba Koldobika, Pastor Martin'dar Josu ta Martin, Gonzalez Gonzalez'dar Laureano ta Joseba Koldobika, Ortiz Urbina'tar Adolfa, Rodriguez Ledesma'tar Jokin eta Matalen, Garcia Agirre'tar Amali, Huergo Diez'dar Joseba ta Ezekiel, Garcia Azedo'tar Andoni ta Garaitzane, Larriba Garcia'tar Bernaba, Ferruz Larriba'tar Paula ta Miren Gotzone.

Beristain Palacios'tar Joseba Inaki, Peli ta Miren Karmele, Ojinaga Heppe'tar Joseba Koldobika ta Nikola, Requero Mentxaka'tar Josena Koldobika ta Miren Gotzone, Bilbao Ceballos'tar Balendin, Lopez Herrandar Joseba Koldobika, Errikarta ta Alberta, Lezertua Bidaurreta'tar Josena Mikel eta Bakarne, Carron Garayo'tar Itxarone, Ildelbontza, Gaizkan eta Julen, Lopez Ortega'tar Lorane, Gonzalez Fuentes'tar Iñaki ta Pantzezka, Virgili Vendrell'dar Mikel' Ramiro Calvo'tar Ander eta Imanol, Rodriguez Marrero'tar Balendin, Joseba Andoni ta Miren Nekane.

Olmo Benes'tar Endika ta Andoni, Padilla'tar Tirso Eroman, Ayuso Galan'dar Peli, Pierna Montes'tar Josu, Imanol eta Gotzane, Ciordia Martin'dar Adolfa, Jon Kurutz eta Josebe, Rodriguez'dar Luki, Andoni, Eukeni ta Amali Abajo San Cristobal'dar Miren Gotzone ta Miren Karmele, Armas Lopez'dar Iñaki, Garcia Uribarri'tar Esther, Josebe ta Brauli, Angulo Nuñez'dar Jon eta Miren, Etxeberri Uribe-Etxeberria'tar Lore ta Terese, Busteros Garcia'tar Errikarta ta Kandida, Martiarez Salazar'dar Pilare, Peña Ruiz'dar Joseba Mirena, Villarruel'dar Andoni Jorja, Gurrutzeta Tineo'tar Miren Terese, Etxano Rivero'tar Jone, Cortes Valles'tar Miren Begoñe.

Hurtado Zabala'tar Benantzi, Prada Gago'tar Fernanda, Prada Gago'tar Edurne, Lavin Maroto'tar Josu, Castaños Agirre'tar Alizi ta Zeli, Anta Gonzalez'dar Gotzon eta Joseba Mirena, Kintana Fernandez'dar Pi eta Benigna, Batikon Etxarri'tar Joseba Koldobika eta Eskarne, Luna Corcuera'tar Jon eta Andoni, Aparicio Castro'tar Karmela ta Sabin, Urkijo F. Retana'tar Miren Begoñe ta Miren Karmele, Espeja Tejedor'dar Pantzezka, Urtiaga Martinez'dar Miren Koldobike, Zubiaur Lopez'dar Gotzon, Martinez Alonso'tar Joseba Koldobika, Gonzalez Gamuza'tar Modesta, Villanueva Lopez'dar Miren Pilare ta Miren Koldobike, Alvarez Garcia'tar Leontzi, Velez Calvo'tar Elene, Roalez Revuelta'tar Imanol, Erraimunde ta Miren, Garcia Sanz'dar Aureli ta Laurentzi, Trancho Retuerto'tar Miren Pilare ta Sanchez Sanchez'dar Oskar.

Nekazaritza

AGINDUA

Jabeak edo zerabilzkitenak utzita dauden jurak landu najean. Zaingo onerri eskabideak bidali dizkiotenei dijoakie oar au. Il onen 25'garreneko egunerokoan argitaldu dan Oroaginduak eskatzen dituan xeetasun guziak beteaz, eskabideak Udalera berriro sartu bearrean arkitzen dira, erabaki al izan ditezen. Ala ere, lenengo eskabidea aurkeztu zuten eguna aintzakotzat hartua izango da lurra nori eman erabakitzerakoan: lenen eskatu duanari ematea erabakirik bait-dago.

Bilbao, 1937'gn. jorrailak 26.—Idazkari Nagusia, Uribe-Etxebarria'tar Telespor.

AGINDU OROKORRA

Il onen 21'garrenez (25'garreneko Egunerokoan) eman zan Oroaginduak, errekiña izate arren iñoren zugaitzdiak artzeko eskubidez janzten du Zaingo ontako Burukidea, Ortaz, uri ortako bearrak lenbaitlen ikasi bitza Udal orrek. Eta errezeko bear dan egurari buruzko arazoa erabakita al daukan adierazi bezaigu. Erabaki gabe badauka, uria zugaitzez zer-nola arkitzen dan eta zein mendi artu ditezken esan bearko digu, mendiok artuaz errekiñaz jabetu al izan dedin.

Bilbao, 1937'gn. jorrailak 27.—Idazkaria Nagusia, Uribe-Etxebarria'tar Telespor.

EGUNA JEL

Lgo. urtia | 103'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17'gn. | Bilbao'n 1937'gn. orrilla 1'gna. larunbata | 15 eunen

Lańi - aldijetan agertu bańi da sendotasuna. Jolas-aldian, edonor da baikof ta adoretsu.

ARGAZKI - INGOSKIA

Euzk^{o}-irulea. Etxeko^{a}ndera maratza irul^{e}-ardatza eskuan daularik, lanian zindoro



Gure gudari^{a}k, luban bańueban sarturik egon ai^{s}n, alaitasunik ez-edo dabe galtzen

Zortzi mośosko

Ats^{e}den aldian... argazkilaria nausi



IZKILURIK GOGOŔENAK

GUDARIAK, TINKO

Euzko-gudariak eta euzko-b^{a}setxia

Ertzain i gulitsuk daŕian lana, g^{o}ralgarrietatik ua dogu. Ona emen, autoan tramankulukas

Guda-